

TOKIKOM

2019ko urria | 196. zenbakia

# ai! kor!

txorierriko aldizkaria

*Bachelor's  
Bride-ren atzetik*





# SAN MARTIN

## ZEMENDIAK

# JAIK

8, 9, 10, 11 ETA 12

### ZEMENDIAK 8 (BARIKUA)

- 19:00** | Txupinazoa eta pregoia Zamudioko Gazte Asanbladaren eskutik.  
Kartel Lehiaketako sari banaketa  
Bertaratzen diranentzako gozokiak  
Kalejira,mozorrotuta (gaia libre), Sabino Arana plazako agertokiraino.
- 23:00** | Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Zoroen Kluba + Akerbeltz  
Kontzertuen atsedenaldian, jolasak

### ZEMENDIAK 9 (ZAPATUA)

- 11:00** | Umeentzako egurrezko jolasak, Kultura Etxean
- 18:00** | Euskal dantzak Hiru Bat taldeagaz, Kultura Etxean
- 19:00** | San Martin XXXIII. Kontzertua, San Martin elizan:  
Kresala hari laukotea eta Zamudioko Kamara Korala
- 20:00** | Fanfarrea Zamudiotik zehar
- 23:00** | Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Txapelpunk + Gora Herria + Dj Munza

### ZEMENDIAK 10, SAN MARTIN BEZPERA (DOMEKA)


- 11:30** | Arbolantxa Pilota Elkarateak antolatutako esku pilota partiduak, frontoian
- 13:00** | Meza nagusia
- 15:00** | Zamudioko slalom-a, Zamudio Racing Elkarateak antolatuta,  
Larragoiti poligonoan

### ZEMENDIAK 11, SAN MARTIN EGUNA (ASTELEHENA)

- 12:00** | Umeentzako jolas parkea, Kultura Etxean  
(12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara)
- 12:00** | Meza nagusia eta jarraian luntxa, elizpean
- 16:00** | Adintsuen Taldeak antolatutako karta txapelketa, Adintsuen Etxean  
(Zamudion erroldatuek baino ez dabe parte hartu ahal izango)

### ZEMENDIAK 12, SAN MARTINTXU EGUNA (MARTITZENA)

- 12:00** | Meza nagusia

-  **4 Eretxiak**
-  **5 Laburrak eta albisteak**
-  **9 Irudietan... Victor Manuel eta Yolanda Hernando**
-  **10 Gurean izan da... Xaibor, animatzailea**
-  **12 Gaztea eta... Katalin Zarate, patinatzailea**
-  **14 Gau Beltza**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Publierrerportajea... Gurena Loiu**
-  **20 Erandion jausitako abioia gogoan**
-  **24 San Martin jaiak, Zamudion**
-  **28 Lehen sektorea itxuraldatzen**
-  **30 Nordic walking-a, Larrabetzun**
-  **32 Jose Manuel Centeno, kirolari egokitua**
-  **34 Izpiluan... "Gutariko" bat**
-  **35 Aikorrizketa... Txorierri institutua txabola artean**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



14 Gau Beltza



24 San Martin jaiak



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



**Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

**Kolaboratzaileak:** Igor Elordui, Bego Vicario, Einer Larrabeiti, Jon Goikouria Larrabeiti, Idoia Andres eta Itallen bertso eskola

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

**Azaleko argazkia:** B-17 on bomb run. Iturria: Wikipedia

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**IGOR ELORDUI**  
Kazetaria

**P**ena eta damua daukat zu hobeto ez ezagutu izana, zurekin agurretik harago berba gehiago egin ez izana. Habia utzi behar izan zenuen eta urrunera eramane zintuen deserriaren haizeak lehenbizi, eta haizerik ere sartzen ez den ziega ilunera gero. Eta, gauzak zer diren, orduantxe, justu kaiolan zinen garaian, egin nuen nik Larrabetzun habia, jaiotzen eta hazten ikusi zintuen haritz mardul, zahar, bizian.

Baina egin ez denaren damua baino gauza tontoagorik ez dagoenez, zurekin

berba egiteko aukera izango banu, ez nuke aukeratuko gazte zineneko garaia, ezta erbestera ihes egin zenueneko; ezta, hori ere ez, kartzelan zineneko. Denetan gura nukeen hitz aspertutxoak egin, zelan ez, baina une bat aukeratu beharko banu, bat bakarra, oraingoa aukeratuko nuke, guztiz libre hegaz dabilen txoria zareneko hau.

Abagunea banu, esango nizuke orain badakidala nolakoa zaren, zure Larrabetzuko herrikideek, Bilbiko auzokideek, zure lagunak, zure familiak... kontatu digutela, zelakoa zaren, ez genekienoi (eta zer esango dizut, ba, ez bada hortik datorrela aukera galdu izanaren pena). Esango nizuke Larrabetzu bete-bete egin zela urriaren 5ean, zapatu ilundian, hainbat herritarrek, auzolanean, antolatuta zizuten omenaldi-ekitaldian. Esango nizuke itzela izan zela, ez zela inor falta izan, hor zirela, arrebak, ilobak... lagunak, herrikideak, auzokideak, militantzia-kideak... Eta konta-

## Txoria zara

tuko nizuke zapatu ilundi hartako bertso, kantu eta berbaldiak ahots urratuz eta negar-malkoz eman zirela, zu ezagutzen ez zintugunak ere guztiz hunkitzeraino. Eta kontatuko nizuke, hau gustatuko zaizu, hori baino lehenago, hain maitatua zenuen ltxinaren magalean deskantsu hartu zenuen egunetan, herritar piloa ibili zela zure bila, lotu barik, zeu topatu arte. Eta harro esango nizuke topatu ere herriak topatu zintuela, Larrabetzuko sinboloa den haritz barruko "bihotz" gorri hori baino handiagoa baita herritarren grina.

Eta, azkenik, lasaiago, neuk ere Mikel Etxabururen poesia hura errezitatuko nuke, betiko hegaldian lagun izan dezazun: «Egunero dator txoria / ziegako leihoa / zu zara orain txoria esatera, / niri jaten eman / kantuan entzun / niri kontuak kontatzera / ziegako leihora / egunero dator txoria / gogoraztera, / zu zara orain txoria esatera».

Txoria zara, Josemi.

**"G**eologia olerkari, miope eta despistatuentzat" topaketara hurbildu nintzen iaz, eta zuekin partekatu nahi dut han entzundakoa. Kontua da geologoa bazara, bizitzari buruz duzun ikuspuntua asko zabaltzen dela: planeta eta bere eboluzio-erritmoak urrunagotik ikusten dituzu, Lurraren materialek duten bilakaeraren erritmora egoikituta. Horrela, bada, ezagutzen dugun bizitzaren eta gure espeziearen suntsipenaz hitz egiten zutenean, halako distantziarekin egiten zuten, gu gabe ere planetak eta beste espeziek berton jarraituko zutelakoan... Askoz hobeto, agian.

Topaketa horietan lehen aldiz entzun nuen gure espeziea lehena eta bakarra zela iraun bitartean atzean fosilak laga-

## Desagertzea



**BEGO VICARIO**  
Irakaslea

tzen zebilena: plastikozko fosilak, hain zuzen ere. Hasieran, itsasoan eta zabor-tegietan –edo gauza bera dira?– dauden plastiko gogortuez pentsatu nuen, baina laster argitu zidaten fosila esaten zutenean benetako harri prezipitatu adierazi nahi zutela, barruan plastikoz eginda dagoena. Kanarietako Calabozoko arroila halako kaltzita-harriz josita dago.

Antropozenoan gaude, Kuaternarioaren segidan dagoen garaian, eta izena gizakiok Lurraren ekosistemetan izaten ari garen eragina kontuan hartuta ipini diote, 1945ean bonba atomikoarekin hasita suntsipena gelditzeko inolako itxurarik ez duen gaur egundaino. Hondamendiari gure izena jarri diogu dagoeneko, izenak berak iraun behar ez badu ere.

**Abelino Arraindegia**

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**aldekone**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

–Especialitate guztiak  
zentro bakar batean  
–Aurrekontua doan

–Especialitatea:  
umeak

Urbio 7, beheko  
48160 DERIO (Bizkaia)



Ioritz Aurrekoetxea bederatzi urte dauzka, baina aspalditik darama *bike trial* kirolean –oztopo handiak bizikletaz gainditzea–. Urriaren 20an, Estatuko indoor Txapelketa jokatu zen Reinosan (Kantabria), eta derioztarrak bigarren postua lortu zuen bertan. “Ioritzek oso maila altua erakutsi zuen txapelketan, ia akats bat ere egin gabe. Oso kontzentratuta egon zen”, esan digu aitak.

Ioritzek oso emaitza onak lortu ditu aurtun. Outdoor txapelketan ere fin dabil, momentuz hirugarren postuan dagoelako. Guztira, hiru saiok osatzen dute txapelketa, eta azkena bakarrik falta da. “Ez dakit hara joateko aukera izango dugun, baina tira...”. Udan beste saio garrantzitsu bat galdu zuen Ioritzek. “Espainiako Federazioak deitu zion Txekiara joateko, munduko txapelketara, baina ezin izan zen joan. Pozik dago, baina lasai ere bai. Ondo pasatzea eta lagunekin ibiltzea da nahi duen gauza bakarra”, azpimarratu du Ioritzek aitak.

## Ioritz Aurrekoetxea derioztarra, Estatuko txapeldunordea



**GABONETAKO LOTERIA**

**aikor!**  
turkierriko aldiakaria

**7 7 6 6 6**

## Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, 195. zenbakian, “Zorioneko egokitzapena!” iritzi-artikulua argitaratu genuen laugarren orrialdean. Testuaren egilea Ixone Urrutikoetxea zela esan genuen, baina ez da zuzena: egilea Ixone Zubieta Tximintx komunitatearen kidea da.

Bestetik, Jose Luis Barrenetxeak sinatutako “Txorierriko Udalen diru-gastuak” artikulua eman genuen argitara 30. eta 31. orrialdeetan. Artikulu horretan, Txorierriko Udalen diru-gastuek 2000-2017 epealdian izandako norabidea erakutsi zen, eta egilearenak ez ziren akats bi egon ziren: alde batetik, 30. orrialdeko taulan transferentziak gastuen % 2 izan zirela ipini zen, baina datua txarto dago: % 20 izan ziren; bestetik, 31. orrialdeko bigarren grafikoan idatzi genuen Larrabetzuko kapital-gastua 3,09 milioikoa izan zela, baina 13,09 milioikoa izan zen.

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

**DERIO - 946 451 781**

**Bizkaia**

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

## Gizarte-sareen gaineko ikastaroa, Tximintxen eskutik

Tximintx komunitateak "Komunikazioa eta sare sozialak mugimendu sozialetan" ikastaroa antolatu du azaroaren 23rako. Ikastaroaren helburua da sare sozialetan trebatzea eta mugimendu sozialen komunikazioa hobetzea. Bestalde, teknologia berrien inguruko gaia oso mamitsua da, eta hura euskaraz jorratzea ere badute xede. Ikastaroa 10:00etatik 14:00etara izango da Derioko Kultur Birikan eta hiru euro balio izango du. Izar Mendiguren Cosgayak saioa zuzenduko du. Mendiguren Aiaraldeko Faktoriako kidea eta aditua da.

## Skate-pista berritu dute Loian

Skate-pista oso egoera txarrean zegoen, eta beharrezkoa izan da hura berritzea erorikoak ekiditeko. Beharretan 5.854 euro ipini ditu udalak. "Loiuko gazteek oso pozik hartu dute skate-pistaren birmoldaketa, izan ere, orain modu seguruan patinatu ahalko dute, eta patinajearen maila eta estilo guztietara egokitu-ta", idatzi du Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean. Bestetik, azken hilabeteotan, Loiuko Udalak herritarren eskaerei erantzun die, eta zenbait kirol-instalazio berritu ditu, hala nola, padel-pistak eta areto-futboleko zelaiko belar artifiziala.

## Eraso matxisten kontrako protokoloa, sanmartinetan



Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak adierazi duen moduan, eraso matxisten kontrako protokoloa ipiniko da martxan San Martin jaietan. Berariazko trebakuntza jaso duen emakume-talde batek brigada feminista osatuko du, eta, erasorik jasoz gero, edozein emakumek jo ahalko du haiengana laguntza eta informazio bila. Protokoloaz arduratzen den taldeak erabakiko du zein erantzun-mota eman.

Talde feministak eraso matxistei aurre egiteko protokoloa idatzi du, eta, horre-

tarako, Emagin elkarteak zuzendutako ikastaro batean hartu zuten parte. Ikastaroan 25 emakume ibili ziren, eta jaietan erasorik balego, zelan jokatu erabaki zuten. "Protokoloa jai-batzordean aurkeztu genuen, eta onartu zen", azaldu dute ohar baten bidez. "Brigadaren partaideek bereizgarri bat eramango dute soinean, eta erasoak jasan duen emakumeak haiengana jo ahalko du laguntza eske. Protokoloan erantzun-motak zehaztu dira, eta erasoaren larritasuna kontuan hartuta, erantzun bat edo bestea ematea erabakiko da. Era berean, gune more bat ipiniko da jai-eremuan erasoak salatzeke".

Jakinarazi dutenez, protokoloaren beste helburuetariko bat prebentzioa da, eta horren harira, herrian dauden puntu beltzak zehazteaz gainera, kanpaina berezi bat ipiniko da martxan. "Hau beste pausu bat da eraso matxistarik gabeko Zamudio baten alde".

Bestetik, Zapata Gorriak taldekoek zenbait hitzordu ipini dituzte azarorako. Azaroaren 3an, elkarretaratzea egingo dute Zamudioko azokan, 13:00etan; eta azaroaren 25ean, Leizaola plazan, 19:00etan. Azkenik, "Amor, sexo eta otras movidas" hitzaldi-tailerra antolatu dute azaroaren 30erako. Hitzaldi-tailerra Psico-womanek emango du eta 19:00etan izango da Kultura Etxeko gimnasioan.

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-izuziak, orokorrean  
Autokoen konsumatzaileak  
Mantentze garbi-izuziak  
Bulegoak eta lokalak  
Oliniko enbaserako garbiketa  
Ikastetxeak  
Zabere hileta

Beside Plaza, 1 - B\* Aldekone  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**LEIRE BEGOÑA**

**ULE-APAINDEGIA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai leinguru Facebooken

**KAFETEGIA**

**IAZI**  
**JATETXEA**

Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioitza, 74  
48196 Lezama

**TABERNA**  
**GAZTERDI**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**LEJARRENE JATETXEA**

Garaioitza auzoa, 12 - LEZAMA • T: 94 455 65 46





## Derioko Udalak kiroldegiko fitness-aretoko ekipamendua berrituko du

Udalak 93.730 euro zuzenduko ditu 38 makina kardiobaskular erostera: korrika egiteko sei zinta, lau bizikleta bertikal, 20 bizikleta indoor, sei bizikleta eliptiko eta *stepper* bi. Makinak alokairuan hartuko ditu lau urtean. Errentamendu-kontratuaren barruan makinak ipintzea eta mantentze- eta konpontze-lanak daude.

Bestalde, entrenamendu funtzionalak egiteko materiala ere erosiko da, eta hainbat osagarri: baloi medizinalak, pisu errusiarak, bankuak, eskailera ho-

rizontalak eta kutxa pliometrikokoak, batzuk aipatzearren. "Kiroldegiko erabiltzaileek modernoak diren eta batez ere egoera onean dauden instalazioez gozatzea nahi dugu", esan du Esther Apraiz Derioko alkateak. "Kiroldegian 3.036 harpidedun daude eta askok fitness-aretoa erabiltzen dute. Horregatik erabaki dugu aparatu hondatuen ordezkariak azken belaunaldiko makinak ipintzea". Udalak kirol makina berriak hornitzea lehiaketara atera zuen irailean, eta espero da ekipamendua urte amaierarako prest egotea.

## Derioko merkatariek berrerabiltzeko poltsak banatuko dituzte

"Derion plastikoei ez, bizitzari bai!" lelopean, Danarik paraje herriko merkataritzako eta zerbitzuetako elkarteak poltsa berrerabilgarriak banatuko ditu bezeroen artean. Azaroaren 8an, karpa bat ipiniko da Aralar kalean eta edonor hurbildu ahalko da hara, poltsa berrerabilgarri bat hartzera. Horren trukean, plastikozko poltsak utzi beharko ditu. Bestalde, elkartearen barruan dauden saltokietako erakusleihoak berrerabiltzeko poltsez apainduko dira.

"Derioko merkataritzako eta zerbitzuetako elkartearen ingurumenaren zaintzaz arduratuta dago. Merkatariek gure bizitzatik plastikoa desagertzeko urratsak eman nahi ditugu, eta herritarrek ere bide horretara bultzatu", azaldu dute. Horrela, bada, bigarren aldia da kanpaina hau martxan ipintzen dutena.



**HAUR-MODA**  
**Tximeleta**  
Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku  
ZERBITZU BERRIAK  
Logopedia  
Podologia  
Kiropraxia  
Txionem etorbidea, 8 - Loroja | Antsoaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 43  
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Arantza Amondarain Lasa  
Ginekologoa  
Txionem etorbidea, 3-4  
413. bulegua  
48100 Derio  
Telefonoa eta faxa:  
94 454 44 58  
a.amondarain@euzume.net

**Nire Autoocasion NA**  
**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**  
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com | info@nireautoocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**  
TUNKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXENKO GOZOGINTZA APARTEA  
**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**  
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala  
Telefonoa 94 454 07 98  
Fax: 94 454 14 15  
Mungialde etorbidea, 25  
48160 DERIO

**tik tak**  
EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria  
**9€**  
**T: 94 454 55 55**  
Bestorrene 5, Behea  
48160 DERIO

## Master Cup-en final-laurdenak, Zamudion

Emakume Master Cup txapelketan 92 pilotari arituko dira, eta horietako 19k lehenengo aldiz jokatu dute pilota mistoko lehia-  
ketan. Gainerako 73ek pilota goxoa erabiliko dute eta honela banatuko dira: lehenengo mailan, 10 pilotari; promozioan, 38 pilotari; eta hastapenean, 25 pilotari. Antolatzaileek jakinarazi duten moduan, final-laurdenak azaroaren 24an izango dira Zamudion. Bestalde, final-erdiak abenduaren 1ean jokatu dira Galdakaon; eta finalak, abenduaren 15ean, Barakaldon. Final-erdiak eta finalak ETB-1ean emango dituzte.

## Sexu-jazarpenagatik salatu dute Derioko enpresa bateko burua

Sexu-jazarpena azpikontratutako emakume garbitzaile batek pairatu du, eta, LAB sindikatuak adierazi duen moduan, 2016ko amaieran hasi zen. Ordura arte emakumeak eta gizonak ez zuten inoiz elkarrekin hitz egin, baina egun batean enpresaren buruak kafea egiteko eskatu zaion langileari eta horren ostean hasi zitzaion sexu-konnotazioa zuten whatsapp-mezuak idazten. Era berean, behin eta berriro deitu dio eta lanean egon den bitartean kontrolatu egin du. Emakumearekin leku txikietan eta isolatueta bakarka egoteko aukerak topatu ditu, eta tren-gelto kiraino ere jarraitu dio.

"Langileak ez zuen denbora luzez salaketarik jarri errepresaliak pairatzeko beldurragatik", azaldu dute. "Hilabete askoan egoera umiliagarria eta bortitza pairatu du eta azkenean gaixotu da: antsietate handia du". Sindikatuak emakumearen ausardia azpimarratu du.

## Soldatak orekatzea eskatzen dute Novaltiako langileek



Novaltia enpresako langile batzuk greban daude. Enpresak abuztuaren 19an ekarri zuen bilategia Zaratamotik Lezamarra. Langileak garai hartan greban zeuden. Lanuztea uztailaren 19an hasi zuten. Hau da eskatzen dutena: euskal hitzarmena berreskuratzea, azpikontratazioa mugatzea eta behin-behineko langileen lan baldintzak hobetzea.

Arazoa "aspalditik" datorrela esan digu Aitor Padilla ELA sindikatuaren birtartekoak. "2013an Vascofer eta Aragofar botikak banatzeko enpresek bat egin, eta Novaltia sortu zuten. Handik aurrera, zenbait langile kaleratu zituzten eta gelditu ginenoi izugarri murriztu zizkiguten soldatak: % 25etik % 40ra bitartean. Era berean, langile berriei 900 euro baino ez zitzaion ordaintzen. Beraz, soldata-eskala bi ezarri zituzten. Ez gaude ados, gure ustez, lan berbera egiteagatik berbera kobratu beharko genuke guztiok, antzinatasuna kontuan hartuta, jakina".

Otsailean, enpresak bertan behera utzi zuen euskal lan-hitzarmena eta Estatu mailakoari heldu zion, enpresaren arabera, "Novaltiako lantegi guztietan indarrean dagoelako". Era berean, enpresak ez due-

la greba-eskubidea errespetatzen salatu dute langileek. "Udan langileak kontratatu zituzten oporrak betetzeko, eta horiek gaur egun ere badabilta grebalarion lana egiten. Baita ugazabak ere. Salaketa jarri genuen, eta teknikari bat etorri zen abuztuaren ikuskapena egitera. Bere txostenaren zain gaude".

Lezaman 52 langilek egiten dute lan Novaltian. Horietako 26 ekoizpen sailean dabilta, eta 21 greban daude. Zuzendaritza, merkataritza eta administrazio sailak lagunak ez dute grebarekin bat egin. Guztira, Novaltiak 160 langile ditu Lezaman, Zaratamon eta Aragoiko lantegibitan.

### Arazoa konpontzeko asmoa

Enpresak arazoa konpontzeko asmoa adierazi du. "Urte eta erdia daramagu langileekin negoziatzen. Tarte horretan, hainbat proposamen egin dizkiegu; hala ere, guztiak arbuatu dituzte. Gure ustez, langileen eskaerak onartezinak dira, enpresaren bideragarritasuna arriskuan jartzen dutelako. Nolanahi ere, negoziatu nahi dugu, gatazkari amaiera emateko", esan digu enpresaren prentsa arduradunak.

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina  
Denominación de Origen

Gotziltza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisol 4, beheko B  
48150 SONDIKA

634 410 470  
auzokidefincas@gmail.com

48150 LEZAMA Bizkaia

**S.A.T. LEGU**  
SERVICIOS DE ASESORIA Y TRABAJO LEGAL

F.: 94 455 64 17 T.: 94 455 64 98





## Victor Manuel eta Yolanda Hernando I Berriemaileak

Inoiz egunkariren edo aldizkariren bat Derioko kioskoan erosi baduzu, Hernando kioskoan izango zen ziurrenik. Victor Manuel 13 urte zituela hasi zen aitarekin lanean; aurrerago, aitak negozioa utzi zuenean, Yolanda hasi zen anaiarekin elkarlanean. Victor Manuelek irakurketa maite du, eta Yolandak, bezeroen arreta. Urteetan, biek irribarretsu jaso dituzte bezeroen eskariak, eta ez dituzte inoiz txorierritarren aurpegiak eta zaletasunak ahaztu.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti  
@jongoikouria

Aldizkari, egunkari,  
album eta abarrak.  
Hernando kioskoan  
bi derioztarrak.  
Eguna alaitzen dau  
zuen irrifarrak  
nahiz egunkarietan  
egon barri txarrak.

Itallen Bertso Eskola



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |  
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |  
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen  
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

**NEURTU  
ZURE ERAKUNDEAREN  
HIZKUNTZA EGOERA**

**6 PAUSOTAN**

**ZUK ZEUK, AZKARETA ERRAZ**

**BETE ZURE  
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



**bai**  
euskarari

baieuskarari.eus  
/baieuskarari ziurtagiria  
@baieuskarari

Ziurtagiriaren  
Elkartea

**Lan eta bizi euskaraz**



# “Lanaz disfrutatzen dut, eta publikoak badaki”

XAIBOR | animatzailea

Diskofesta euskalduna ekarri du Txorierriko herrietako eta auzoetako jaietara azken urteotan. Nekaezina da agertoki gainean eta ikuskizun bakoitzean bere one-na ematen du. Bere ospeak Euskal Herriko txoko guztietara eramaten du, eta irailean Derion eta Loian izan dugu.

t: Itxaso Marina / a: Xaibor

## Atsedena hartzeko gogoz ibiliko zara udaren ostean, ezta?

Uda honetan ere egundokoa izan da: maiatzetik urrira bitartean ikuskizun asko eduki ditut. Aurreko urteetan moduan, Bizkai osotik ibili naiz, Gipuzkoa aldetik ere bai, eta apur bat Arabatik. Gainera, aspaldiko partez, Nafarroan ere eskaini dut saio nahikotxo. Bai, azaroa etortzeko gogo handia dut, pixka bat lasaitzeko eta oporrak hartu ahal izateko.

## Zein da azaroko oporraldiaren osteko lan-egutegia?

Euskararen Egunaren eskutik sartuko naiz berriro jai-giroan, eta Gabonetan 10 ikuskizun inguru eman ohi ditut; 15 ikuskizun, Inauterien harira. Bestalde, abenduan ere aprobeztatzen dut Gabonetan umeei oparitzen dieran DVDa grabatzeko, eta urtarrean koreografia berriak sortzen eta ikasten ditut udako biran dantzatzeko. Izan ere, nire diskofesta erabat berritzen dut urterik urte: Ene Kantak egitasmoaren abestiak, *Go!azenenak*, Gatiburenak, pailazoenak, euskal zumba berriak... Kamioia-  
ren itxura ere aldatzen dut urte

guztietan, eta oparitzen dudan DVDaren edukia ere berritzen dut.

## Urtero ikusten zaitugu Txorierriko jaietan. Nolakoa da bertoko publikoa? Kostatzen da txorierriarrak dantzan ipintzea?

Ez dizuet koiperik eman nahi, baina, oro har, txorierriarrak oso festazaleak eta dantzazaleak zarete. Beharbada, gurasoei umeei baino apur bat gehiago kostatzen zaie ekitaldiaren hasieran; hala ere, animatzen direnean, gehienak ipintzen ditut martxan.

## Urtean 150 bat emanaldi egin ohi dituzu, eta batzuetan, lau saio, egun berean. Nola ateratzen zara bizirik zurrumbilo horretatik?

Egia esateko, 15 urte daramatzat lan honetan eta, azkenean, gorputza erritmo horretara ohitu egin da. Niri ez zait gustatzen ordenagailuaren atzean egotea eta publikoak nahi duena egitea; nik ikuskizun guztietan, eta momentu guztietan, egiten dut dantza: asko inplikatzeko naiz, guztiek nire koreografia berriak dantza ditzaten. Bestetik, aipatu duzuenez, askotan gertatu zait egun berean lau saio edukitzea; ekainean gertatu da: goizean, emanaldi bat ikastetxe batean; eguerdian, beste eskola batean;

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotanko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Astelchenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatan  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**ERREKA**  
JAT  
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,  
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa.: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29



*“Ez zait gustatzen  
ordenagailuaren atzean  
egotea; momentu  
guztietan egiten  
dut dantza”*

*“Lanari gogoa eta  
amodio propioa gehitu  
behar zaizkio, eta nik  
euskararekiko  
konpromisoa dut”*



arratsaldean, beste ikastetxe batean; eta gauean, San Joan jaia herri edo auzo batean.

**Ordu biko ikuskizuna eskaintzen duzu.**

Lehenengo ordu eta laurdena umeentzako emanaldia da: kamioi-eszenatokiko bigarren solairura igotzen dira txandaka dantzatzeko; ondoren, ilaran ipintzen dira nire DVD berria eta poster-egutegia hartzeko. Horren ostean, familiarentzako ekitaldia

hasien da eta hainbat koreografia egiten ditugu, hala nola *No rompas más* abestiaren euskarazko bertsioa, *Trenaren txakatxa*, *Ikusi mendizaleak* eta modan dagoen edozein abesti.

**Zein da errazagoa: umeen itxaropenak betetzea ala gurasoenak?**

Umeenak, oso konformistak dira eta.

**Euskal Herriko plazetara diskofesta euskalduna eramaten duzu. Horretara-**

**ko, euskal abestiez gainera, modan dau- den erdal abestiak euskaratzen dituzu.**

Bai, erdal abesti asko euskaratzen ditut. Nire ustez, lanari gogoa eta amodio propioa gehitu behar zaizkio beti, eta nik euskararekiko konpromisoa dut.

**Zure abestiak ere konposatzen dituzu. Nondik datorkizu konpositore alderdi hori?**

Txikitatik gustatu izan zait konposatzea, hitzak eta musika batuta. Askotan diskoak ere egiten ditut plazetan oparitzeko.

**Hamabost urte daramatzazu agertoki gainean. Nolako bilakaera izan duzu?**

Urtetik urtera egiten dut muntatze ezberdina: abesti berriak sortu, euskaratu, besteek sortutako euskarazko abestien koreografia ikasi... Hamabost urteak ematen duten esperientzia ere erabiltzen dut ikusizun bakoitzean.

**Eta publikoak?**

Orokorrean, publikoa beti azaltzen da poz-pozik nirekin. Badakitelako emanaldi guztietan asko inplikatzeko naizela eta lanera ez naizela robotak bezala joaten, baizik eta lanarekin eta lanaz disfrutatzen. Eta nik disfrutatzen badut, hori publikoarengan nabaritzen da; kutsatu egiten dira.

**Amaitzeko, eta kontatu ahal bada, zein ikusizun eramango duzu datorren urtean plazaz plaza?**

Izenburua orainsu erregistratu dut: *Dantzaokea*. Lehen ordu eta laurdenean umeentzako remixak egongo dira, esaterako, Ene Kantak RMX, Pirritx, Porrotx eta Marimotots RMX eta *Go!azen* 5.0 RMX. Ondorengo 40 minutuan, karaokea abestuko dute kamioira igoko diren gurasoek. Horretarako, 4 m x 4 m-ko LED pantaila ipiniko dut kamioian.

## Showmana

Xaiborren atzean Xabier Totorikaguena Zubiaga dago, eta bera ardurtzen da pertsonaiaren inguruan dagoen guztiaz: ikusizunaren gidoia, abestiak, koreografiak, kamioia plaza batetik bestera eramatea, marketina, argia, soinua, fakturazioa, gizarte-sareak... “Nekagarria da, baina oso gustura egiten dudanez eta nire ogibidea hori dela onartuta dudanez, askoz errazago eramaten dut lan hori guztia. Momentuz ez dut pentsatu ezta zeregin bat ere beste inoren esku uztea”.

Xaiborren esanetan, bera ez da dj-a. “Haiek ez dute koreografiarik egiten eta ez dira abestiak euskaratzeaz arduratzen. Are gutxiago, ikusizunetan ez dute garasirik egiten eta ez dute euskarazko azalpen dinamikorik ematen. Neuk bai”. Agertokian barruan duen *showmana* azaltzen da. “Txantxetan eta errespetuz zirikatzen ditut nagusiak, mugiarazteko edota bion artean konplizitatea sortzeko”.

Lanean ez dagoenean, edozein musika-mota entzuten du. “Bakarrik *reggaetona* eta techno “matxakoia” alboratzen ditut”. Batez ere euskal musika gustatzen zaio, eta Estatuko 70eko eta 80ko musikaren zalea ere bada.

**RADIO TAXI FEMADE** *Zure taxi, Teorierikoa*  
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu  
24h **94 480 09 09**   
**ERRESERBAK:**  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

**DESKARGATU APP-A**  
  
**TAXI FEMADE**

t: Itxaso Marina

Txapelketea Leganesen egin zan eta bertan zazpi herritako 100 patinatzailek hartu eben parte. Herrialdeei jagokenez, Espainia, Frantzia, Italia, Errusia, India, Ukraina eta Belgikako partaideak izan ziran. "Pozik nago, bai. Ganera, kontuan hartu behar da bakarrik hilabete bi daroadazala inline patinaje artistikoa egiten. Onenak ukrainarrak eta errusiarak izan ziran, nire ustez. Baina ni neu be ondo ibili nintzan nire kategorian (*beginners* edo hasibarriak), eta ondo sentitu nintzan. Esperientzia polita izan zan, errepikatzeke modukoa".

Gaztetxoa lau urte ebazala hasi zan lerroko patinajea egiten, udalak antolatutako ikastaro bati esker. "Akabuan itxi egin neban, gehiago ikasteko aukerarik ez nebalako". Patinaje artistiko tradizionalagaz –lau gurpileko patinak– saiatzea erabagi eban eta, Barakaldoko klub baten hilabete batzuk emon ostean, Show Getxo patinaje klubean sartu zan bederatzi urtegar. Ordutik hona gogotsu ibili da entrenatzen eta, esfortzuaren ondorioz, bakarrik urrats bat falta jako patinaje tradizionalan dagoen mailarik altuena eskuratzeko. "Ondo moldatzen naz ohiko patinajea: maila altu batean nago eta badakit salto onak eta egiten". Inline patinaje artistikoan –hiru gurpilduneko patinak– be trebea da, nahiz eta patinaje honetan denpora gitxi eroan. Munduko txapelketea irabazi izana horren adierazlea da. "Oraindino asko dot ikasteko". Halanda be, eta oso ezbardinak badira be, bietan sentitzen da eroso. "Inli-

*"Honeek dodaz  
indargune: nire burua  
gainditzeko grina,  
abiadura eta saltoak  
egiteko erraztasuna"*

*"Gustauko litxakit  
etxetik hurbil  
patinatzeko pista  
bat egitea"*

## "Egun osoa emongo neuke patinetan"

KATALIN ZARATE SANZ | patinatzailea

Urrian, Inline Patinaje Artistikoaren Munduko Txapelketea egin zan lehen aldiz, eta zamudioztarra lehena gelditu zan *beginner* kategorian. Hamabi urteko gaztetxoak orain zortzi urte hartu ebazan patinak estreinakoz, eta harrezkero hiru patinaje-motatan ibili da: lerrokoa, tradizional artistikoa eta inline artistikoa. Pistan abilezia eta azkar mugitzen da.





ne patinajeak oreka eta abiadura handiago eskatzen dau, beharbada; izotz gaineko patinajearen antzekoa da. Gorpilen materiala be ezbardina da, berme bakarra dago... Edozelan be, ondo egokitzen nabil”.

Bere indarguneen ganean galdetu deusagunean hau erantzun deusku: “Nire burua gainditzeko grina, abiadura eta saltoak egiteko erraztasuna”. Era berean, talde on baten egotea lagungarria da. “Lagunak dira eta gustura nago. Hori be inportantea da”. Baita adorez entrenatzea be. “Martitzenetan ordu biko entrenamendua egiten dot inline patinajea; eta eguaztenetan, beste ordu bi ohiko patinajea. Eguenetan 45 minutuko gimnasia-saioa egiten dogu lesioak ekiditeko, eta zapatuetan lau orduko entrenamendua dogu: ordu bi, inline patinajea; eta beste ordu bi, tradizionalen. Domeketan bost orduko saioa egiten dogu, eta ohiko patinajea, showa eta dantza lantzen doguz”. Ordu asko dira astean, baina neskak ondo daroa. “Batzuetan apur bat neketsua da, etxerako lanak be egin behar dodazalako –DBHko bigarren mailan nago–. Dana



dala, badakit deporea ondo antolatzen eta atzenean danetariko tarte izaten dot; lagunakaz egoteko be bai”.

#### Beharra

Patinajetik birek, saltoek, musikak... erakartzen dabe. “Ez dakit; txikitatik egin dot eta patinatu egin behar dot. Egun osoa emongo neuke patinetan”. Patinajearen barruan modalidade asko dagoz, eta berak batez be estilo librea jorratzen dau (saltoak eta birak), showa (taldekide guztiak aldi berean dantzatzea) eta artistikoa. “Asko gustetan jat, eta entrenamendue-

tara joatea ez da bape nekagarria; asko disfrutatzen dot”. Patinaje tradizionalaren azken mailara ailegatzea dau helburu eta, holan, federatu ahal izatea. “Euskadiko txapelketetan parte hartu neike; maila handiagoko txapelketetan. Zenbait lehia- ketan ibilia naz, baina horreek gehienbat ikasteko izan dira, pista bildur barik ur- teteko, maila erakusteko... Bigarrena lotu naz batzuetan; hirugarrena, beste batzue- tan...”.

Patinatzen saiatzeagaitik hasi zan, eta gaur egun argi dau, ahal izan ezker, bi- zitzia osoa emongo leukela gorpilen gai- nean. “Zorionez, ez naz inoz lesionatu”. Amaitzeko, eskaera bat dau: “Gustauko litxakit etxetik hurbil, adibidez, Zamudion bertan edo Derion, patinatzeko pista bat egitea. Pista itxia izan beharko litzate- ke eta, neurriei jagokenez, saskibaloiko edo areto-futboleko zelaia- ren antzekoa. Zoruak egurrezkoa izatea mesedegarria izango litzateke, irristatzeko hobe- a dala- ko eta, erortzen bazara, ez dozulako min handirik hartzen. Ganera, ziur nago entre- natzeko leku egokia egoteak zaletasuna bultzuko dauena”.



Uzta berriak ostera Bizkaiko udagoiengan

|                                                                                                   |                                                                                                                                |                                                                                                                          |                                                                                                              |                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>SONAKAY -IKER LAUROBA</b><br/>BILBO BBK aretoa<br/>urriak 26 20:00<br/>sarrera: 10/12 €</p> | <p><b>ANNE ETCHEGOYEN &amp; LES NOUVELLES VOIX BASQUES</b><br/>BERRIZ Kultur etxea<br/>urriak 26 20:00<br/>sarrera: 8/10 €</p> | <p><b>AGUR ETA DOLORE ANTZERKIA-SOLASALDIA</b><br/>PLENTZIA Danontzat Gaztetxea<br/>azaroak 9 20:00<br/>sarrera: 3 €</p> | <p><b>HUNTZA</b><br/>GETXO Muxikebarni Antzokia Arriagunaga aretoa<br/>azaroak 15 22:00<br/>sarrera: 8 €</p> | <p><b>OLATZ SALVADOR + XABI BANDINI</b><br/>BILBO Kafe Antzokia<br/>azaroak 28 22:00<br/>sarrera: 10/12 €</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

# Kalabazak hustu eta kandelak piztu



a: gaubeltza.eus

Akarbaltz Gauda 2005ean ospatu zuten lehenengo aldiz Larrabetzun, hango Kultur Bilguneak sustatuta. "Konturatu ginen gure umeak egun horretan gureak ez ziren iruditeria bat eta erreferentzia batzuk lantzen zebiltzala; hau da, Estatu Batuetako iruditeria, oso inperialista eta kolonialista dena. Eta guk ez genuen horrelakorik nahi. Guk seme-alabak Euskal Herriko iruditeriaren barnean eta bertoko erreferentziekin hezi nahi ditugu, eta horretarako sortu genuen Akarbaltz Gauda", adierazi dute.

Ospakizuna hiru ardatzetan oinarritzen da. Lehenengo eta behin, Akarbaltz izaki mitologikorengan. "Gure sineskera ez kristautik, mitologiatik elikatzen den iruditegia lantzen da, eta hor dugu, adibidez, Akarbaltz. Baina ez bera bakarrik; Larrabetzuko buruhandiak eta beste pertsonaia batzuk ere lantzen dira, esaterako, Kukulbixto antzerki taldeak sortutako Kukulbel. Pertsonaia horiek guztiak ipuin batean bildu genituen, eta umei

Askoren ustez, Halloween gaia Estatu Batuetako ospakizuna da, sustrai zeltak dituen arren. Kalabazak eta beldurrezko moztarrok ohiko bihurtu dira urriaren 31n gure herrietan; hala ere, ez dugu urrun joan behar ohitura honekin topo egiteko. Euskal Herriko txoko askotan Gau Beltza edo Arimen Gauda ospatu zen XX. mendera arte. Txorierrin aha-legendetan dabilta antzinako usadioa gure egunetara ekartzeko.

*t: Itxaso Marina Ondarroa*

Halloween gaia jatorri paganoa duen ospakizuna da eta sustraiak *Samhain* jai zeltan ditu. Udazkeneko solstizioan, lehenengo irlandarrek festa hori egiten zuten udaren eta uztaroaren amaiera ospatzeko eta urte zelta berriari ongietorria emateko. Irlandarren sinesmenaren arabera, gau horretan hilak bizidunen artean ibiltzen ziren, eta hainbat erritu egiten zituzten hildakoekin hitz egiteko. Gainera, kandelak pizten zituzten leihoetan, hilek euren bidea topa zezaten. Estatu Batuetara migratu ziren irlandarrek eurekin eraman zuten ohitura eta bilakaera handia eduki du, gaur egun ezagutzen dugun ospakizun bihurtu den arte.

Baina marketin eta pelikula estatubatuarrek Halloween festa gurera ekarri baino askoz lehenago, Euskal Herriko leku

askotan Gau Beltza edo Arimen Gauda ospatzen zen Santu guztien egunaren bezperan. Kalabazak eta arbiak hustu, begiko, sudurreko eta ahoko zuloak egin, eta horien barruan kandelak pizten ziren. Kalabazak-eta bide bazterretan uzten ziren hildakoen arimek bidea erakusteko. Era berean, gazteak eta umeak etxeko trape zaharrekin moztarrotzen ziren auzokideak beldurtzeko, eta herri batzuetan umeak eskean ibiltzen ziren. Ohitura horiek, alabaina, galtzen joan ziren denboraren poderioz, eta gaur egun ezezagunak dira euskaldun gehienentzat. Azken urteotan, herri batzuetan aha-legendak egiten dabilta usadio zaharrak berreskuratzeko edo interpretatzeko.

Herri horietako bat Sondika da. Aurtengo Gau Beltza ospatuko dute lehen aldiz. Antolatze-lanetan hauek ibili dira: Altxora euskara elkarte, herriko kultur taldeak,

eskola-ludoteka eta udala. "Gure asmoa da zaharra hartzea eta berreskuratzea, baina gaur eguneko balioak erabilita: komunitatearen sentimendua, kohesio soziala, euskara, naturarekiko lotura, birzilapena...", azaldu dute Altxora elkarteak. Horretarako, ekintza-sorta zabala antolatuko dute urriaren 31rako.

## Beldurrak uxatu

Arratsaldean, tailerrak egingo dituzte: moztarrok, kalabazak eta makillajea. Ondoren, afari-merienda eta umeentzako jolasak izango dituzte, eta amaieran gaitainak banatuko dituzte gozokiaren ordez. Gau Beltzari 21:00etan emango diote hasiera. Nork bere beldurrak idatziko ditu paper batean, su txikira botatzeko eta uxatzeko. Garrasia talde feministak euskal mitologian oinarritutako antzezlan eskainiko du, eta gero, moztarrok jantzita



## Akarbaltz Gaia, ospakizun zaharrena Txorierrin



a: Idoia Andres

kontatzen diegu eskolan". Bigarren ardatza sorginak dira. "Akarbaltz Gaia Inkisizioarekin eta sorgin-ehizarekin ere lotzen dugu; eta, hortaz, emakumearen kontra-

ko indarkeria ere jorratzen dugu. Azken batean, Inkisizioa emakumearen kontrako indarkeriaren isla izan zen, eta muturreko jarrera, emakumeak erretzea. Umeei

kontatzen diegu sorginak emakume baserritarrak zirela eta asko zekitela inguruko landare eta belarrei buruz. Jakintza hori komunitatearen onerako erabiltzen zuten eta horregatik erre zituzten". Hirugarren ardatza lurrarekiko atxikimendua da, eta, horri lotuta, herriko auzoak, belardia eta landaredia lantzen dituzte.

Aurten, katamalo tailerra egin dute lehenbiziko aldiz eta, aurreikuspenaren arabera, 140 lagun inguru maskara jantzita ibiliko dira ohiko kalejiran. Bizkargi dantza taldeak Xabi Solanoren *Erre zenituzten* abestirako asmatutako koreografia eta eskolako umeek iaz landutako koplak ere baliatuko dituzte horretan. Erromeria batek amaiera emango dio ospakizunari. "Oso jai parte-hartzailea da hasieratik, eta umeek zein gurasoek hartzen dute parte. Itzelezko giroa sortzen da".

eta kalabazak eta kandelak hartuta, prozesioan irtengo dira herriko erdigunetik hilerriaraino. Bidean sorpresa beldurgarriren bat edukiko dute Sondikako Inauteriak elkarrearen eskutik, eta udalak argien intentsitatea gutxituko du ibilaldia erakarriago egiteko. Hilerriko atarian lurperatzaile biren arteko solasaldia entzungo dute; hizpide heriotza edukiko dute.

Ekintza horren ondoren plazara jaitsiko dira berriro, eta han amaiera emango diote Gau Beltzari. Gorantzaileak dantza taldekoek eta Garrasiaren neskek dantza egingo dute eskolako umeekin batera, eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek prestatutako bertso-kanta bat abestuko dute. Bestalde, musika egongo da eta fotomatoi bat ipiniko da familiek eta lagun-kuadrillek argazkia egin dezaten.

"Arbasoek lurraren eta naturaren zikloi lotuta zeuden errituak egiten zituzten antzina, baina Eliza ohitura pagano horiek bereganatzen joan zen ospakizunak kristautu zituen arte. Gurean, Santu guztien egunak oso lotura estua eduki du erlijioarekin; hala ere, horrek ez du esan nahi beste usadiorik ez zegoenik".

### Ingurumena zaindu

Orain urte bitik hona, zamudioztarrek Arimen Gaia ospatzen dute urriko azken egunean. "Halloween festak indar handia hartu du gero eta globalizatuagoa den mundu honetan. Hori kontuan hartuta, Zamudioko Udala ahalegindu da Arimen Gaia ospatzeko ohitura berreskuratzen, eta hori gurera egokitzen eta ingurumenarekin lotzen", azaldu du Lander Are-

txabaleta kultura zinegotziak. "Hainbat usadio berreskuratzen hasi gara, beti ere ingurumena zaintzeko ardura hartuta. Horrela, gaztainak erretzeaz gainera, tarta gozo-gozoak egiten dira kalabazak hustu eta gero geratzen den mamiarekin; etxeko olio zaharra berrerabilita, eskuan eramateko moduko kandelak edo argizariak ere egiten dira".

Ondarearen Europako Jardunaldiak arte komunitarioen balio kulturala azpimarratzea dute aurtengo helburutzat. Arte komunitarioen barruan era guztietako adierazpenak daude, hala nola ludikoak, erritualak eta zeremonietakoak; Arimen Gaia jardunaldien testuinguruan egingo da. "Ahalegin berezia egingo dugu denon artean gure erara ospatzeko; eta zamudioztar zaharrenen testigantzetan oinarrituta, mundura zabalik eta sormena lagun, gure kultura egokitzen eta ingurumenarekin uztartzen jarraitzeko". Helburuari heldzeko, tailerrak antolatu dira urrian zehar: koplak zahar bat ikasteko eta dantza egiteko tailer bat, kandela edo argizari birziklatuak egiteko beste bat eta moztar jasangarriak diseinatzeko azken tailer bat, hain zuzen ere. Tailerretan ikasitakoa plazara eramango dute guztiek batera.

*Sondikan gaur eguneko  
balioak azpimarratuko  
dituzte, hala nola  
komunitatea, euskara  
eta naturarekiko lotura*

*Zamudion, ospakizun  
zaharra gure egunetara  
egokitu eta  
ingurumenarekin  
lotu nahi dute*

# Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko batzorde berriak lanean hasi dira

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeen ostean, udal gobernu talde berriak eratu ziren Mankomunitatea osatzen duten sei udaletan. Mankomunitatean ere Osoko Bilkura eratu da –Josu Andoni Begoña mankomunitateburu dela eta Ikerne Zu-luaga mankomunitateburorde–, baita lanerako informazio-batzordeak ere. Legealdi honetan berritu egin dira batzordeak, izenez eta izanez, eta urrian ekin diote lanari. Mankomunitatean dauden batzordeen berri emango dugu labur-labur:

**Antolakuntzako informazio-batzordea.** Bertan, gai hauek landuko dira: ogasuna eta aurrekontuak, giza baliabideak, herritarren parte-hartzea, gardentasuna, herritarren arreta eta komunikazioa.

**Lurraldeko informazio-batzordea.** Ingurumena, zerbitzuak, enplegua eta sustapen ekonomikoa.

**Herritarren informazio-batzordea.** Gizarte-ongizatea, gizarte-zerbitzuak, esku-hartze komunitarioa, berdintasuna, euskara, kultura, gazteria eta kirola.



Hamaika kidek osatzen dituzte hiru informazio-batzordeak, eta horietan Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udalak daude ordezkatuta. Informazio-batzordeek Mankomunitatearen Osoko Bilkuran talde politikoek duten ordezkaritza berbera dute. Hori dela-eta, batzorde bakoitzean EAJ taldeko zazpi kide daude, EH Bildu taldeko hiru kide eta PSE-EE taldeko kide bat. Informazio-ba-

tzordeek hiru hilerik behin egingo dute ohiko bilera, Osoko Bilkura batzen den aurreko astelehenean. Hiru informazio batzorde iraunkor horiez gain, Mankomunitateak Kontuen Batzorde berezia ere badauka, urteko kontuak aztertzeko eta haiei buruzko informazioa emateko. Azken batzorde bat ere badago mankomunitateburuari aholkularitza emateko: Tokiko Gobernu Batzordea.

## Zertara eta nola jolasten dira gure seme-alabak?

Gaur egun, teknologien erabilpena oso hedatuta dago gazteen artean, esaterako, sare sozialak, mugikorrak, kirol-apus-tuak, zorizko jokoak, bideo-jokoak...

Illo horretan, bizitzaren beste testu-inguru batzuetan ikasten duten modura, garrantzitsua da gazteek tresna horiek zentzuz eta errespetuz erabiltzen ikas-tea eta elkarbizitza positiborako araudi eta muga zehatzak barneratu ditzatela. Garrantzitsua da gazteek ezagutzea zein arrisku duen telefono mugikorra neurri-kanpo erabiltzeak; horregatik, erakutsi behar zaie nola erabili modu arduratsuan gailu hori, bizikidetzan egon daitezkeen gatazkak saihestu ahal izateko.

Halaber, ezinbestekoa da gaia fami-liekin lantzea eta hausnarketa bat egitea. Izan ere, askotan familiek ez dute argi zein

muga jarri, nola landu gaia eta nola kudeatu tresna horiei lotuta sor dai-tezkeen gatazkak. Aldi berean, beldu-rra eta kezka ikusten da.

Horregatik, bi orduko hitzaldiak antolatuko dira, familiek izan ditzake-ten galderak, dudak eta informazioa ezagutzeko eta gaia lantzeko. Euska-razko taldea Larrabetzun elkartuko da azaroaren 7an, Angulerin, 18:30etik 20:00ak arte. Bertan parte hartu ahal izateko, Mankomunitatean eman be-har da izena urriaren 24tik azaroaren 6ra arte. Bestetik, gaztelaniazko tal-dea azaroaren 14an elkartuko da De-rioko Kultur Birikan, 18:30etik 20:00ak arte. Talde horretan izena emateko, Mankomunitatera deitu behar da azaroaren 4tik 12ra arte.

## Nora bota hondakinak?

iturria: [bizkairezikla.garbiker.bizkaia.eus](http://bizkairezikla.garbiker.bizkaia.eus)

Latexezko eskularruak: errefusen edu-kiontzira.

Plastikozko edalontziak, platerak eta mahai-tresnak (erabili eta botatzekoak): errefusen edukiontzira.

Lanpara halogenoak eta goritasun-bonbillak: errefusen edukiontzira.


Kontsumo txikiko lanparak, LED lan-parak, fluoreszenteak, deskarga-lanparak: garbigunera edo lanpara horiek eros dai-tezkeen dendetara.





# ZERTARA ETA NOLA JOLASTEN DIRA GURE SEME-ALABAK?

## TXORIERRIKO NERABEEN FAMILIENTZAKO TAILERRA



### IZENA EMATEKO

ekt@txorierri.eu

944 54 03 50 (Esti)

### EUSKARAZ

Azaroak 7

Larrabetzuko Anguleri Kultur Etxean

18:30etik 20:00ak arte

**Izena emateko epea:**

urriaren 24tik azaroaren 6ra arte

### GAZTELERAZ

Azaroak 14

Derioko Kultur Birikan

18:30etik 20:00ak arte

**Izena emateko epea:**

azaroaren 4tik 12ra arte

### TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK

DERIO | LEZAMA | LOIU | LARRABETZU | SONDIKA | ZAMUDIO

[www.txorierri.eus](http://www.txorierri.eus)

Antolatzailea:



TXORIERRIKO  
MANKOMUNITATEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Egoiliarren autonomia ardatz

Loiu Gurenak bi eratan eskaintzen ditu eguneko egonaldiak: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearekin lankidetzan eta modu pribatuan. Lehenengo aukerari dagokionez, erabiltzaileak Mankomunitatearen gizarte-zerbitzuen bidez ailegatzan dira egoitzara. Loiu Gurenaren langileek erabiltzaileak etxean hartzen dituzte egoitzara eramateko, eta etxera eroaten dituzte eguneko egonaldia amaitu ondoren. Adinekoek sei ordu ematen dituzte geriatrikoan, eta bertako zerbitzu eta jarduera ludiko guztiak gozatu ahal dituzte. Era berean, eurentzako gunea dute lorategi eta guzti. Zerbitzua astelehenetik barikura ematen da, jaiegunetan izan ezik.

Zerbitzua modu pribatuan eskaintzen denean, ordutegia eta egutegia askoz zabalagoak dira; izan ere, Loiu Gurenaren profesionalak erabiltzaileen eta bere familien premietara egokitzen dira egunero-kotasuna errazteko. Garraio-zerbitzuaren ordutegia ere malguagoa da. "Beharrian guztiei eman ahal diegu erantzuna, horretarako profesionalak ditugulako eta beti gaudelako zabalik", azaldu du Marisol Couceiro Mariño Loiu Gurearen zuzendaria. "Bestalde, eguneko egonaldiak onura handiak ekartzen dizkie adinekoek, etxetik betiko irten barik, beste pertsona batzuekin sozializatzen baitira: zentroan antolatzen diren ekintzetan hartzen dute parte eta, ondorioz, oraindik hainbat gauza egin

## LOIU GURENA

Loiu Gurenak 2007an zabaldu zituen ateak Txorierrin. Egoitza geriatrikoak azpiegitura ezin hobeak ditu egoiliar bakoitzaren beharrianetara egokitutako zerbitzua eskaintzeko; baina ohiko prestazioez gainera, beste zerbitzu bi ipini ditu erabiltzaileen eta familien eskura: eguneko egonaldiak eta babespeko apartamentuak.

ditzaketela ohartzen dira; hitz egiten dute eta barrukoa askatzen dute; hau da, tarte atsegina pasatzen dute".

Egoitza geriatrikoan babespeko apartamentuak ere badaude, etxean ez seguru sentitzen hasi diren arren, oraino egoitza batera joan nahi ez duten pertsonentzat. "Oso aukera baliagarria da. Lagun horiek autonomoak dira, baina bakarrik bizi dira eta beldur dira zerbait gertatuko ote zaien. Bertan izanda, ziur daude txirrina jotzen badute artatu egingo dituztela. Are gehiago, gauez bi aldiz sartzen gara egoitzako logeletara zein apartamentuetara, dena ondo dagoen ikustera. Gainera, babespeko apartamenduek bakoitzak bere sarrera dute, eta, nahi ez badute, ez dute zertan egoitza pasatu; eta nahi izanez gero, bada, egin dezakete lasai asko".

Loiu Gurenak 34 banako apartamentu eta zortzi apartamentu bikoitz ditu. Egoi-

liarrek 60 urtetik gorakoak izan behar dute, eta bikotekideen kasuan batek mendekotasuna izan dezake; era berean, haietariko bat 60 urte baino gutxiago eduki ditzake. "Mendekotasuna duen bikotekideak behar dituen zaintza guztiak jasoko ditu. Bestetik, egoiliarren batek behin-behineko mendekotasuna badu, adibidez, hanka bat apurtzen bazaio, apartamentuan geldituko da osatu arte eta han artatuko dugu".

## 24 orduko laguntza

Apartamentuak erabat hornituta daude: bainugela egokitua, sukaldea, mikrouhin-labea, hozkailua eta logelako eta egongelako altzariak. Apartamentu bikoitzek terraza ere badute. Loiu Gurenak beste zerbitzu osagarri batzuk eskaintzen dizkie, hala nola otorduak prestatzea eta arropa zein apartamentua bera garbitzea. "Pakete batzuk daude eta bakoitzak bere beharri-





zanetara ondoen egokitzen dena har dezake: bazkaria bai, baina gosaria eta afaria, ez; otordu guztiak; arropa garbitzea... Oinarrizko paketeak –egonaldia, argia, ura, berokuntza eta 24 orduko laguntza– 600 euro balio du hilean; eta pakete osoak, 1.500 euro hilean. Egoiliarrek egoitza geriatrikoaren zerbitzu eta jarduera guztiez baliatu daitezke, eta apartamentua euren gustura apaindu dezakete. Bisita-ordutegia ere oso zabala da. "Apartamentuek oso autonomia eta askatasun handia ematen diete. Horren harira, gure helburua da ahalik eta autonomoagoak izan daitezela, apartamentuetan zein egoitzan bertan. Nahi badute, erosketak Interneten bidez egiten dizkiegu; janari-erretilua apartamentura eramaten diegu, eta, gero, nahi dutenean bazkaldu edo afaldu dezakete... Batzuek autoa eta guzti dute handik hona ibiltzeko".

Horietako bat Rosa da. Autoa egoitzako aparkalekuan du, eta, behar duenean, hartzen du dentistarenera edo fisioterapeutarenera joateko, Bilbora... Hirurogeita hamalau urte ditu eta Loiu Guren bost urte daramatza. Ez da damutzen hartutako erabakiaz, "etxean bezala nagoelako", esan du. Etxebizitza handi batean bizi

zen eta bakarrik gelditu zenean, amak bere garaian egin zuen moduan, etxetik ateratzea erabaki zuen. "Aukera batzuk aztertu nituen, eta babespeko apartamentua ideia ona iruditu zitzaidan, zeren eta, erabateko askatasuna izateaz gainera, zerbait gertatuz gero, berehalako laguntza edukiko dudala baitakit". Rosak bere altzariekin eta bere gustura apaindu du apartamentua, eta hasiera-hasieratik sentitu du etxean

dagoela. "Nahi dudanean altxatzen naiz, gosaltzen dut, solasean ibiltzen naiz gainerako egoiliarrekin, zapatuetan Areetara joaten naiz seme-alabekin eta ilobekin bazkaltzera...". Opera asko gustatzen zaio, eta hilabetean behin DVD bat hartu, eta ekitaldi-aretoan ipintzen du nahi duenak berarekin batera ikusteko. "Bertoko jendea zoragarria da eta esperientzia guztiz gomendagarria da".

## Gune egokiak, edozein lagun artatzeko

Loiu Gurenak 226 lagunentzako lekua du: 176 toki, egoitzan bertan; eta 50, babespeko apartamentuetan. Egoitzak hiru solairu ditu, eta adinekoak batera edo bestera zuzentzen dituzte beren egoera fisikoa eta psikikoa kontuan hartuta. Portaeraren nahasmendua duten lagunentzako gunea ere badute. Lorategi asko daude Loiu Gurenan, eta, besteak beste, soloa, etxaldea, txoko handi bat, patio zabalak, bost areto handi, liburutegia, ordenagailuak, billarrea jolasteko aretoa eta kapera dituzte. Era berean, ekitaldi-sorta zabala egiten dute egunero, eta ekitaldi bereziak ere antolatzen dituzte: dantzaldiak, orkestrak eta irteerak, batzuk aipatzearren. Senideek Interneten bidez eduki dezakete ekintza horien guztien berri, baita edozein informazio eskuratu ere.

Lantaldea 90 profesionalak osatzen dute: 70 egoitzaren langileak dira eta 20 azpikontratatu daude. Loiu Gurenak zerbitzu hauek eskaintzen dizkie egoiliarrei: medikua, erizainak (24 ordu), gerokultorak, talde psikosoziala, gizarte-langileak, psikologoa, animatzaile soziokulturalak, ile-apaintzailea, sukaldaritza eta ikuzte-giko eta garbiketako zerbitzua. Gainera, oftalmologoak, dentistak eta podologoak ere zerbitzua ematen dute egoitzan bertan.

Loiu Gurenak gune egokiak ditu autonomoak diren nahiz edozein mendekotasuna duten pertsonak artatzeko. Era berean, hainbat egonaldi-mota eskaintzen die adinekoei eta euren familiei: mugagabeko egonaldiak, egunekoak, gauekoak, asteburukoak eta atsedena hartzekoak, esaterako.

**Egoitzak 42 babespeko apartamendu ditu:**  
**34 banako eta**  
**zortzi bikoitz**



**TALDEA**  
**GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**

Unbe txiki bidea 9 – LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**


Mendekotasuna duten pertsonak  
Pertsona autonomoak  
Eriondoak



Ezkerritik eskuinera: Pedro Jordan, Modesto Perdigo, Barb Dow, Steve Dow, Thierry Martinez eta Jose Antonio Aresti, abioia jausi zen lekuan.

## Erandion jausitako abioia gogoan

1944ko ekainean, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, bonbaketari estatubatuar bat erori zen Erandiogoikoan, eta bere istorioa orain dela zazpi urte eman genuen argitara. Harrezkero zuzeneko eta zeharkako lekuko berriak agertu dira; euren testigantzak hurrengo orrialdeotan batu ditugu.





t/a: Jose Angel Mentxaka

Artikulu horretan azaldu genuen moduan, *Bachelor's Bride* izeneko hegazkina 1944ko ekainaren 25ean irten zen Ingalaterratik, Toulouseko aerodromo bat (Frantzia) bonbardatzeko asmoz. Kontuan hartzekoa da Bigarren Mundu Gerra pil-pilean zegoela, eta Normandiako lehorreratzea 19 egun lehenago izan zela. Abioia matxuratu egin zen eta hala-hola lortu zuen Erandiora heltzea: lurra bertako solo batean hartu zuen. *Bachelor's Bride* hegazkina Boeing B-17 bat zen eta ezaugarri hauek zituen: 31,54 m zabalera, 22,50 m luzera, 5,82 m altuera eta ia 15 tona pisatzen zuen hutsik. Itzela, beraz.

Imajinatu ahal dugunez, lurreratzea ez zen batere erraza izan. Hegazkinak ia etxe bat jo, eta gari-solo batean amaitu zuen. Tripulazioa bederatzi gizonek osatzen zuten, denak estatubatuarrak eta, zaurituren bat izan arren, guztiak irten ziren onik. Medikuntza-iragarpenaren arabera, Fann William artilleroa larri zegoen eta lau egun eman zituen konorte barik; Craghead Jesse radio-operadoreak sudurra apurtuta zuen; eta Goodrich Ferrall pilotuak, zauri bat aurpegian. Estatubatuarrak denboraldi bat eman zuten Larrondoko txalet batean, Gibraltarretik Ingalaterrara itzuli aurretik. Abioia lurreratu zen lekura hurbildu ziren inguruko baseritarrei paraxut batzuk eman ei zizkieten –oihala oso preziatua zen–, baina, batzuen esanetan, militarrek geroago kendu egin zizkieten.

#### A handia

Modesto Perdigo istripuaren lekuko zuzena izan zen 16 urte zituela. Orain 90 urte ditu; hala ere, ondo go-

goratzen du gertatutakoa eta gogotsu kontatu digu. Sondikan bizi zen eta zarata handi bat entzun zuen. Leihotik hegazkin baten atzeko partea baino ez zuen ikusi, A letra handi batekin. Perdigo hegazkin zalea zen artean –gero pilotua izan da, aireko akrobazietan aditua–, eta berehala ezagutu zuen abioi-mota: gotorleku hegalaria esaten zieten bonbaketarietakoa zen. Hegazkina Erandion jausi zen berria zabaldu zenean, motorra hartu zuen eta hara joan zen; abioia solo artean ikusi zuen.

Tripulaziokoek txokolatea eskaini zioten. Guztiakin hitz egin zuen, baina batez ere John Callaghan abioiko atzeko metrailadorearen arduradunarekin. Callaghan Kaliforniako morrosko handi bat zen eta gaztelaniaz arean bazekien. Balaren bat ere eman zion. Ezkerreko eskuan gurutze-itxurako zauri bat zuen, eta horri buruz galdetu zionean, estatubatuarrak aitortu zuen berak aitzoaz egindakoa zela, otoitz moduan. Bestalde, tripulaziokoek esan ziotenez, pilotuak beste guztiei popara joateko agindua eman zien larrialdiko lurreratzea egiteko.

## Hegazkinak ia etxe bat jo, eta gari-solo batean amaitu zuen

Perdigok Larrondoko txalet batetik, Santiago Alcaiderenetik hain zuzen ere, deitu zuen Amerikako kontsulettera; hasieran ez zioten sinetsi. German Pereiro medikuak “yanki kabroi horiek” artatzeari uko egin ziola ere esan digu, “gure lagun alemaniarrek bonbardatzen ibili ondoren”. Bere hitzetan, mediku faltsua zen, titulurik ez zuen eta. Azkenean, praktikantearengana jo zuten, Modesto Perdigoarengana; hau da, gure lekukoaren aitarengana. Hori egunero joaten zen Larrondoko txaletera estatubatuarrak artatzeraz.

Jose Antonio Arestik, berriz, hiru urte baino ez zituen abioia jausi zenean. Alabaina, berak ere badu buruan gertatutakoa. Etxeko guztiak mezan zeuden eta bera auzoko etxean Miren Madariaga-



**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Larrialdi Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Unitzaga Roala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
46100 - DIERO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



#### BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

#### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

#### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari



Ezkerraldean, goiko argazkian, Pedro Jordaneke erakutsitako liburua; beheko argazkian, Dow senar-emazteak, Loiuko txaletean; erdikoan, Ferrall "King" Goodrich pilotua; goian, Goodrich eta bere emaztea; eta azpian tripulazioko baten iparrorratza.

rekin, zaintzen zuen neskarekin. Abioia ia-ia jausi zitzairen gainean, eta Arestik ospa egin zuen etxera, Etxebartara. Portzelanazko garbiontzi batean zeuden lekak hartu, eta berarekin batera eraman zituen gurasoen logelara, beste inork har ez zitzaiz. Mezatik etorri zirenean, kostatu zitzairen umetxoa topatzea, gurasoen ohe azpian luzaro egon baitzen ezkutatuta. Antza denez, ezin izan ziren logelara sartu, atearen kontra aulki bat jarri zuelako.

Arestik esan digunez, etxea libratzeko egin zuen maniobragatik, hegazkinak argi-zuntzoiaren punta apurtu zuen eta hori luzaroan egon zen konpondu barik. Bera ez zen abioia ikustera joan, ez zuen inola ere ikusi nahi; luze ibili zen beldurrarekin.

### Liburuak eta iparrorratza

Pedro Jordan jaio berria zen istripua gertatu zenean, eta, beraz, zeharkako lekukoa dugu. Gaur egun Berangon bizi da. Aitak oso gutxi hitz egin zion gai honetaz, gazterik hil zen eta. Hala ere, etxean beti egon dira "altxor" batzuk: liburu bi eta al-kandora bat. Amak esan zion aireportu ondoan jausi zen abioi batekoak zirela. Liburutegian egunkari zaharrak arakutzen ordu asko eman zituen arren, ez zuen ezer aurkitu. Aikor! aldizkarian argitaratutako artikulua irakurri zuenean, hari-mutur guztiak lotzen hasi zen, eta bere testigantza eman digu.

Aita, Jose Maria Jordan, militarra zen eta abioia jausi zenean arduradun bidali

zuten Erandiora. Etxean ikusitako al-kandora –orain ez daki non dagoen– paraxut baten oihalez egindakoa ei zen; amak brusaren bat edo soinekoren bat ere egin ei zuen. Jordaneke lehen aipatutako liburuak erakutsi dizkigu: bata alemanez dago idatzita eta txikia da; bestea, ingelesez eta handiagoa. Liburuetan munduko era guztietako guda-itsasontziak daude, euren siluetak ezagutu ahal izateko, eta hainbat datu.

Sixto izeneko bat ezagutu zuen, Plentziakoa. Garai hartan, Sondikako aireportuko obretako nagusietako bat zen eta istripuan hasierako unean egon zen; hark ere paraxut bat hartu ei zuen. Bere etxean hegazkineko metrailadorearen hiru bala ikusita ditu Pedro Jordaneke. Gainera, semeak oraindik du tripulazioko baten iparrorratz txiki bat.

### Amerikarrak heldu dira

Urriaren 17ko goizean, hitzordua izan dugu Ferrall "King" Goodrich pilotuaren alabarekin, Barb, eta bere senarrarekin, Steve Dow. Toulousetik etorri dira Thierry Martinezek lagunduta (abioietan aditua, 2012an ere etorri zen Txorierrira). Arin joan dira abioia jausi zen belar-solora; gari-soloa, garai hartan. Talde polita bildu gara bertan: lekukoak, interpreteak eta laguntzaileak. Barb guztiz hunkituta egon da; gero, lasaiago, bere gogorapenak partekatu ditu gurekin.

Aita moduan, Barb Kalifornian jaioa da, baina Estatu Batuetako iparraldera joan ziren bizitzera, Washington estatuko Edmonds hirira, Seattletik hurbil. Bost neba-arrebetatik gazteena da, eta bidaia hau familiari zor diola esan digu. Aitak 80 urte bete arte ez zuen gerrari buruz ezer kontatu, eta 95 urte zituela hil zen; orain bost urte. Bonbaketari bat pilotatu izanagatik eta hildako jendearengatik errudun sentitzen ei zen, eta gai horri dagokionez beti izan zuen jarrera itxia. Kontatzen hasi zenean liberazio modukoa izan zen, eta, familiak bultzatuta –amak bereziki–, Barbek bere gain hartu du aitaren urratsei jarraitzea.

"Hogeita bost urte zituen orduan. Aire-basea Ingalaterran zuten, eta Toulouse-ren ingurua bonbardatzeko agindua jaso zuten. Normandian zeudela, alemaniarrek eskuineko motor bat indargabetu zieten, eta 27.000 oineko altueran zihoazela sustan hasi zen. Aitak paraxutak prestatzeko esan zion tripulazioari –bederatz guztira–, eta hegazkina 5.000 oineko altueran ipini zuen. Formaziotik kanpo zeudenez, bere eskuadrilakoek etsaitzat hartu zuten abioia, tirokatu zuten eta beste motor bi hondatu zizkieten. Horrela ezinezkoa zen itzultzea, eta Espainiara abiatzeko agindua jaso zuten".

Oso baxu zihoazenez, ezin izan zuten paraxutarekin salto egin eta Goodrichen pisuzko gauza guztiak botatzeko agindu zuten, armak eta guzti. Paperezko doku-



## Goodrich bonbaketari bat pilotatu izanagatik errudun sentitzen ei zen

mentu sekretuak, berriz, ezin bota, eta jan behar izan zituzten. "Batek pisuzko prakak ei zituen, eta aitak txantxetan kontatzen zuen hark prakak ez ezik barruan zeramatzan dokumentazioa ere bota zuela". Leku-ko guztien esanetan, Goodrich oso pilotu trebea zen, eta Txorierrira motor bakar batekin eta non zeuden oso ondo jakin barik heldu zen. "Lehen aukera uretan lurrratzea izen zen, baina txalupaz beteta zegoen eta, airetik ikusitako aireportura ailegatzeko asmoz -ez zen konturatu obratan zegoela-, buelta eman zuen".

### Zibilen jantziak

Aireportura ezin izango zirela heldu ohartu zen eta lurra hartzea erabaki zuen. Besteei abioiaren atzeko aldera joateko

## Txorierrira motor bakar batekin eta non zeuden oso ondo jakin barik heldu zen

esan zien, eta leku lau bat topatzen saiatu zen, etxeak jo barik. Pilotuak argi-poste bat jo izana gogoratzen zuen, eta horrek psssst egin zuela. "Gerrikoa ondo lotu barik zuenez, ebakia egin zuen bekokian. Beste bati sudurra apurtu zitzaion, eta hirugarren bati kutxa bat erori zitzaion gainera. Leihotik atera ziren". Inguruan baserritar asko ei zegoen. "Larruzko jaka odolez beteta zuen. Etxe batean zauriak garbitu zizkieten eta auto bat etorri zen euren bila. Batzuk ospitalera eraman zituzten, eta aitak kontatzen zuen bekokiko zauria anestesia barik josi ziotela. Biraoka hasi zen".

Estatu Batuetako kontsulatuko ordezkariak eroritako hegazkinaren tripulazioa babestera joan ziren, eta Larrondoko txa-

let batera eraman zituzten. Han, aste pare bat eman zuten eta, gero, Bilbon zibilen jantziak erosi ondoren, Alhama de Aragoneko hotel-bainuetxera aldatu zituzten. Bainuetxean hiru hile inguru izan ziren; leku horretan beste 70 bat soldadu zeuden antzeko egoeran. "Etxera itzultzeko, zibil moduan bidaiatu ziren; euren kontura autobusez. Gibraltarrera joan, eta Inglaterra itzuli ziren. Tripulazioko gehienek amaitutzat eman zuten gerra, baina aitak jarraitu zuen pilotu-misioak egiten. Gerra amaitu zen eta urte askoan egon zen hegazkin hartu gabe, harik eta 60 urterekin berriro hasi zen arte: familia osoa hegazkin txiki batean eramaten gintuen".

Abioia jausi zen solotan egon eta gero Larrondoko txaleta bisitatu dute; ondoren, Bilbora joan dira, New York gozo-dendara. Izan ere, txaletaren ugazabak gozo-dendaren ugazabak ziren garai hartan. Sopelako hondartzatik ere ibili dira pasieran, eta olatu batek busti-busti egin du Barb. Baina ez zaio axola izan; bideari jarraitu diote. Hurrengo helmuga Alhama de Aragon izan dute, *Bachelor's Bride*-ren pilotuaren urratsei jarraituta.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia

Euskararekin  
Match!



ERDU GEUGAZ!  
EGIZU EUSKARAZ!



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA

### 2019-2020KO TALDEAK:

#### GOIZEZ

|               |                                                      |
|---------------|------------------------------------------------------|
| B1, B2 eta C1 | Astelehenetik ostegunera, astean 10 ordu             |
| A2            | Astearte, asteazken eta ostegunetan, astean 7,5 ordu |
| A1            | Astearte eta ostegunetan, astean 4 ordu              |

#### ARRATSALDEZ

|                  |                                               |
|------------------|-----------------------------------------------|
| A2               | Astean bi egunetan, astean 6 ordu             |
| B2               | Astean hiru egunetan; astean 7,5 ordu         |
|                  | Astean bi egunetan; astean 6 ordu             |
|                  | Astean bi egunetan; astean 4 ordu             |
| C1               | Astean hiru egunetan, astean 7,5 ordu         |
|                  | Astean bi egunetan; astean 4 ordu             |
|                  | Ostiral arratsaldeetan trinkoa; astean 4 ordu |
| Mintzamen taldea | Astean bi egunetan; astean 4 ordu             |

#### AUTOIKASKUNTZA TALDEAK

# Gogotsu sanmartinetarako

a: Zamudioko Udala

Txupinazoak hasiera emango deutse ekitaldiz betetako bost eguni. Hori bari-kuan izango da, 19:00etan, eta pregoia Gazte Asanbladak irakurriko dau. Kartel-lehiaketaren sariak be banatuko dira, eta gozokiak banatuko dira plazara bertar-tzen diranen artean. Mozorroen kalejire-a Sabino Arana plazako agertokiraino ur-tengo da, eta bakotzak gura dauen mozo-rroa jantzi ahal izango dau. Zoroen Kluba eta Akerbeltz taldeek kontzertua eskaini-ko dabe 23:00etatik aurrera, eta atse-de-naldian kuadrillen arteko jolasak egingo dira lehenengo aldiz.

Zapatuan, umeek egurrezko jolasez gozatuko dabe 11:00etatik aurrera Kultu-ra Etxean. Hiru Bat dantza taldeak euskal dantzen alardea eskainiko dau 18:00etan, Kultura Etxean, eta San Martin XXXIII. Kontzertua izango da eleizan. Kontzertua

San Martin jaiak Zamudioko jai nagusiak dira, eta aurten azaroaren 8tik 12ra bitartean ospatuko dabez. Ohikoa dan moduan, Eguraldi jai-batzordeak eta udalak herritar guztientzako jai-egitaraua antolatu dabe.

19:00etan hasiko da, eta Kresala hari lau-koteak eta Zamudioko Kamara Koralak hartuko dabe parte. Fanfarre batek he-rriko txokoak girotuko dauz iluntzean, eta agertoki nagusira talde honeek igo-ko dira: Txapelpunk, Gora Herria eta Dj Munza. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira.

Domekan, San Martin bezperan eta Arbolantxa pelota alkartearen eskutik, eskupelota partidak egongo dira fron-toian 11:30etik aurrera. Meza nagusia 13:00etan izango da, eta 15:00 Zamu-dioko slaloma egingo da Larragoiti po-ligonoan, Zamudio Racing alkarteak

antolatuta. Lander Aretxabaleta kultura zi-negotziak azaldu dauenez, barikuko kon-tzertuen atsedeenaldian egingo diran kua-drillen arteko jolasakaz batera, slaloma aurtengo jaietako nobedadeetariko bat da. Beste nobedade bat da astelehenean, goizean zein arratsaldean, Kultura Etxean umeentzat egongo dan jolas-parkea. As-telehenean be, 12:00etan, mezea egongo da eta, ostean, kopaua. Adintsuen taldeak karta-txapelketea antolatu dau arratsal-derako, eta horretan Zamudion errolda-tuta dagozanek baino ezin izango dabe parte hartu. Hitzordua Adintsuen Etxean ipini dabe 16:00etarako.



Txapelpunk. argazkia: Alvaro Cache

**Ne-ahaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio  
Txorierriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK  
Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia

**Construcciones-Reformas**  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra  
Especializatea:  
Xalila-lanak  
Zoruak  
944522910 - 665703312 - 652772016



**PiKoteo Taberna**

KAXOLAK - OLAGARROA  
TXIPIROIAK

**ODOLOSTEAK  
AZAROAK 8-9**

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6  
48170 ZAMUDIO  
**689 213 782**

**TOLDOS TXORIERRI**  
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak  
Sareak  
Eguzki-ohialak  
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 12 58  
Faxa: 94 452 07 44  
Gasolindegia ondoan

*Jaietan be,  
euskara jalgi hadi  
Zamudioko herrira*

**LA  
GA  
TZU**  
ZAMUDIOKO  
EUSKERA  
ALKARTEA  
www.lagatzu.org

**zamudion  
euseraz?  
hoba ez!**

**CB** *Ileapandegia*  
*Ana Belén*  
*estetika - solariuma*

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**OAKLAND  
ENGLISH**  
LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2  
ZAMUDIO  
**946522857**

**MAILA GUZTIAK  
ADVANCED IN ENGLISH  
FIRST CERTIFICATE  
HIZKUNTZA ESKOLA  
BUSINESS ENGLISH  
BATXILERGOA  
D.B.H.**

Gorbeia, 7 Behea  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 452 21 41  
Faxa: 94 452 21 42  
www.gestionzamudio.com  
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión  
Zamudio** Aholkularitza Fiskala  
Jon Vázquez García  
AKTUARIO-EKONOMILARIA

**ZAMUDIO  
BATZOKIA**

Azaroaren 8an eta 9an  
Txarriboda menua:  
(porrusalda, odolostea eta giharra)

Arbolantxa, 5 ☎ **846 664 093 / 666 849 324**

HORTZ KLINIKA  
**GANDIAGA**  
94 608 62 30 - 31  
klinikagandiaga@euskalnet.net  
10:00etatik 20:00etara arte  
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.  
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

Hortz-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370



Martitzenean, San Martintxu egunean, amaiera emongo jake aurtengo sanmartinei. Mezea 12:00etan izango da. Bestalde, jaietan karpa bana ipiniko da plazan eta Kultura Etxean, egin leiken eguraldi txarretik babesteko.

#### Erasorik ez

Sanmartinak eraso sexistarik bako jaiak izatea da aurtengo helburuetako bat. "Bardintasun-batzordea sortu dogu eta jai-gunetan eraso sexistak prebenitzeko eta horreei arrete emateko protokoloa onartzeko alkarlanean gabilz hurrengo honeek: Zamudioko Udala, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunidadeko bardintasun-teknikaria eta Zapata Gorriak eta Lagunandre emakumeen alkarteak", esan dau Aretxabaletak. "Azkeneko dokumentuan, Zapata Gorriak alkarteak eginiko ekarpenak jaso ez eze, irizpideak proposatu be egingo dira, edozein eraso sexistaren aurrean zelan jokatu jakiteko, emakumea babesteko eta emakumearen intimidadea errespetatzeko, unean-unean gura dauen moduan jokatu daian". Abenduaren hasieran, Bardintasun-batzordeak beste batzar bat egingo dau udaletxean, gai horretan sakontzen jarraitzeko. "Zamudioko emakume guztiek bertan parte hartzera animau daitezala gura dogu, alkarteetakoak izan zein ez izan, euren proposamenak eta ekarpenak kontuan hartu gura doguz eta. Bien bitartean, San Martin jaietan lan egingo dogu, beste batzuetan egin dan legez, erasorik gertatuz gero, prebentziorako eta gogor erantzuteko prest egon gaitzean eta Zamudioko herriar guztion eretxia sendo eta ozen agertu daigun, hau da, ez ezetz dala beti".

*Aurtengo nobedadeak  
kuadrilen arteko  
jolasak, slaloma  
eta umeentzako  
jolas-parkea dira*

*Akerbeltzek, Dj Munzak  
Txapelpunkek, Gora  
Herriak eta Zoroen  
Klubak, eskainiko  
dabe kontzertua*

Zamudioko Azokea San Martin jaietako atarikoa da. Jendetza handia batzen dauan ekintzea da, eta igaz inoz baino jente gehiago hurbildu zan herrira. Izan be, nekazaritzako eta abeltzaintzako produkturik onenak ikusgai eta erosgai egoteaz gainera, Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokea eta Euskadiko Limusin arrazako Abeltzari Txapelketea oso erakargarriak dira bertokoenzat zein bisitarientzat.

Zapatuan, 50 saltokitik gora ipiniko dira eta horietan txokolatea, gozokiak eta artisau-lanak ikusi eta erosteko aukerea egongo da. Gainera, Eusko Labeldun indabak eta txarrikia dastatu ahalko dira, baita bertoko garagardoa be. Azokan bost euro gastatzen diran bakoitzean, bonu bat jasoko da herriko tabernetan kafe bat hartzeko. "Zapatuko azokak gero eta jente gehiago erakartzen dau. Ez da harritzekoa, ze gozoki-artisauek eta ekoizleek urtean-urtean salgai sano interesgarriak eta gozo-gozoak ekartzen dabez", adierazo dau Lander Aretxabaleta kultura zinegotziak.

Bestetik, domekan, 90 saltoki baino gehiago atonduko dira Kotxozulo parkean eta produktu freskoak eskainiko dituzte, hala nola barazkiak, fruta, gaztaia, txakolina, eztia eta euskal pastela. Era berean, Euskadiko Limusin arrazako Abeltzari Txapelketea egingo da. "Zamudioko nekazari gehienak bertan ikustea eta jendeak nekazarien lana-





## Azokea, jentetsuagoa urterik urte

gazko eta jeneroagazko erakusten dauan interesa harro egoteko modukoak dira". Azaldu dauanez, herritarrek gero eta interes handiagoa dabe tokian tokiko produktuak -0 kilometrokoak - kontsumitzeko eta lehenengo sektorearen alde egiteko. Nekazamudio azokea adibide emon dau. "Orain hiru urtetik hona egiten da Kultura Etxean, hilaren lehenengo zapatuan. In-

gurutako ekoizleak etortzen dira euren produktuak saltzera, eta gero eta jente gehiago be hurbiltzen da azokara". Atzean, aitatu dau Zamudioko Azokea egun handia dala. "Urte osoko lanaren emaitzea da, hau da, udalaren babes osoa dauan lanaren emaitzea". Azokearen harira antolatutako ekintza guztiak karpapean egingo dira.



## Egitaraua

### Azaroak 2, zapatua

- 10:00 VII. Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokea.
- 10:00 XXVII. Euskadiko Limusin arrazako Abelgorri Txapelketea.
- 11:00 Abere-lehiaketea (emeak).
- 11:30 eta 12:30 Artisau-garagardoa dastatzea, azalpen eta guzti.
- 13:00 Euskal Labedun indabak eta txarrikia eta Zamudioko artisau-garagardoa dastatzea.
- 17:00 Herri-kirolak, Kultura Etxeko patioan.
- 17:30 Abere-lehiaketea (arrak).
- 20:00 Idi-probak.

### Azaroak 3, domekea

- 10:00 XXXIV. Zamudioko Azokea.
- 10:00 XXVII. Euskadiko Limusin arrazako Abelgorri Txapelketea.
- 10:00 Limusin abelgorrien, Zamudio-ko ganaduaren eta nekazaritza-produktuen erakusketea.
- 11:30 Idiazabal gaztaia eta txakolina dastatzea, azalpen eta guzti.
- 13:00 Euskadiko Limusin arrazako Abelgorri Txapelketearen sariak banatzea.
- 13:30 Nekazaritza-lehiaketearen sariak banatzea.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

- ✓ Gosariak
- ✓ Pintxoak
- ✓ Otartekoak
- ✓ Entsaladak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Hamburgesak
- ✓ Plater konbinatuak

✓ ODOLOSTEAK, AZAROAK 8-9

Eramateko  
janaria



Txantxangorri, 2  
48170 ZAMUDIO  
94 471 83 41



Angel Garro, Jon Lekerika, Martin Uriarte eta Javier Aramendi hizlariak aritu ziren.

# Lehen sektorea itxuraldatzen

Lorra Bizkaiko nekazari eta abeltzainen elkarteetako kooperatiba da, eta urrian jardunaldia antolatu zuen Bilbon, "Lehen sektorea Bizkaian. Tradizioa edo lanbidea". Hizlariak lehen sektoreko alderdirik ezezagunena erakutsi nahi izan zuten eta, bide batez, baserri-tarrei buruz dauden aurreiritziak baztertu.

Lehenengo hizlaria Javier Garro Lorra kooperatibako Animalia-ekoizpen Arloko arduraduna izan zen. Garrok lehen sektoreak Bizkaiko ekonomiari egiten dion ekarpena azaldu zuen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen estatistika-datuak erabili zituen. "Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE), 18.000 lanpostu daude lehen sektorean; horietako 7.000, Bizkaian. Era berean, gure jardura EAEko barne-produktu gordinaren % 0,8 da, baina guri lotuta dauden beste sektore batzuk gaineratzen baditugu –elikagai-industria, gastronomia eta elikagaiak banatzea–, guztira barne-produktu gordinaren % 10 da", esan zuen Garrok.

Gainera, Lorrako langileak hainbat datu eman zituen Bizkaiko kontsumoari eta ekoizpenari buruz: gazta, arrautzak, eztia, ardoa... "Esnekiei dagokionez, urtean 117 kilo jaten da pertsonako, eta ho-

rietatik % 44 Bizkaian ekoizten dira; oke-lari dagokionez (behi-aziendakoa), urtean 7,36 kilo kontsumitzen da pertsonako, eta % 59 bizkaitarra da; eta bizkaitar bakoitzak 109 kilo fruta jaten du urtean, eta horietatik % 4 baino ez dira gure herrialdean ekoizten".

## Sektore modernoa

Martin Uriarte Lorra kooperatibako zuzendari kudeatzaileak ere hartu zuen parte jardunaldian. Hark baserriko gaur eguneko egoeraren ezaugarriak eta erronkak izan zituen hizpide. "Gizarteak lehen sektorearen inguruan duen irudia erabat desitxuratuta dago, iraganari lotuta, hain zuzen ere. Hiriko lagunek uste dute baserria folkloreakin eta ohitura zaharrekin zerikusia duen zerbait dela. Eta eredu hori gainditu behar dugu: jakinarazi behar dugu gurea sektore modernoa, ja-

sangarria eta lehiakorra dela", adierazi du Uriartek.

Lorra kooperatibako zuzendari kudeatzailearen esanetan, azken 30 urteotan, sektoreak aurrerapausoak eman ditu. "Baratzezaintzari dagokionez, ustiategiak gero eta bariatuagoak dira eta horietan ekoizten diren produktuak gero eta hobek; fruta- eta txakolin-ekoizleek teknologia berriak erabiltzen dituzte kalitatea hobetzeko; gaurko otorduek nutrizio-ba-

*"Hiriko lagunek  
uste dute baserria  
folklorearekin  
zerikusia duen  
zerbait dela"*



## XXI. mendeko baserritarra

Hizlarien artean, Jon Lekerika le-zamarra ere aritu zen. Lekerika Lorra kooperatibaren presidentea da eta bere ustiategiari buruz hitz egin zuen. Lezamarrak inor baino hobeto islatzen ditu XXI. mendeko baserritarrek egin behar dituzten ahalegin berritzaileak, arrakasta lortzeko. Lekerikatarren ustiategiaren lehenengo hazia aitak jarri zuen Basalbeiti baserrian, Goitioltza auzoan, orain dela 45 urte. Hamabost urte geroago, Jon, Carlos eta Alberto Lekerika Andikoetxea anaiek jarraipena eman zioten aitak martxan jarritako ne-gozioari.

Horretarako, teknologiaren aldeko apustua egin zuten. Gaur egun, 15.000 metro koadroko ustiategiak bost ne-gutegi ditu: kristalezko hiru, loreak eta tomateak ekoizteko; eta plastikozko bi,



piperrak eta letxugak landatzeko. "En-presa batek lehen sektorean aurrera egiteko, dibertsifikazioa da gakoa", ai-patu zuen Lekerikak.

*Lehen sektoreak hiru  
erronka ditu: gazteak  
erakartzea, teknologia  
berriak erabiltzea eta  
emakumea bultzatzea*

*"Baserritarron lanak  
hainbat onura ekartzen  
dizkio naturari, baina  
hiriko gizarteak ez du  
herrikoa errespetatzen"*

% 10 dira emakumezkoak. Horren harira, 2015ean Emakume Nekazarien Estatutua jarri zen martxan, emakumezkoek jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko.

### "Errespetua"

Azkenik, Javier Aramendi Orozkoko abeltzainen elkartearen presidentea har-tu zuen hitza. Aramendiren hitzaldia ez zen besteenak bezain serioa izan, baina zintzotasunez eta gordintasunez jorratu zuen baserritarren gaur eguneko egoera, eta euren lana aintzat hartzeko aldarri-katu zuen. "Baserritarron lanak hainbat onura ekartzen dizkio naturari: haziak za-baldu, suteak kontrolatu, bertoko arrazei eutsi, herriko biztanleriari eutsi... Baina hi-riko gizarteak ez du landa- gizartea erres-petatzen. Abeltzainok urteak eta urteak daramatzagu mendietan eta ondarea utzi dugu bertan. Hala ere, guztien artean ito egiten gaituzte: legediak, turismoak, basa animaliek, ekologistek... Mendia ez da gu-rea; denok erabiltzekoa da, baina errespe-tuz eta jasangarritasunez. Nekazaritza Mi-nisterioa desager dadila, eta Sen Onaren Ministerioa sor dadila".

lio handia dute... Azkenik, abeltzaintzak izugarritzko iraultza izan du: lehengo ba-serriak «Noeren ontzia» bezalakoak ziren, haietan askotariko abereak egoten zire-lako; gaur egun, ordea, baserriak ustiate-gi teknifikatuak dira eta dirutza inbertitu dute hobekuntza genetikoan eta azpie-gituretan. Lehiakorrak gara European, eta ekoizpen berriak agertu dira: barraskiloak haztea, emuak, alpakak, perretxikoak...".

Hala ere, ustiategiaren kopurua gero eta txikiagoa da. Nekazaritza erroldak 10 urte-rik behin egiten dira, eta hurrengoak aurten plazaratuko dute. Horrela, 1989an, 27.369 ustiategi zeuden EAEn -12.813, Bizkaian-; hoguei urteren ondoren, 2009an, 16.407 enpresa -7.072, Bizkaian- baino ez dau-de lehen sektorean. Jaitsiera % 40koa izan da. Ildo horri jarraituz, Uriartek esan zuen baserritarrak "nagusiak" direla. Hazi fundazioaren arabera (landa, itsasertz eta

elikagaien sustapenerako fundazioa), Biz-kaian, ustiategiaren jabeen % 10ek 40 urte baino gutxiago ditu. "Gazteak lehen sek-torean sartzeko neurriak hartzeko premia dugu. 2004an Gaztenek programa jarri zen martxan, eta lagungarria izan da, hari esker 1.000 gazte baserritar egin direlako, baina kopuru hori ez da nahikoa", adierazi du Uriartek.

Horretatik aparte, erronka bi gehiago aipatu ditu. Batetik, lehen sektoreko lagu-nek gutxi erabiltzen dituzte teknologia be-rriak, beste sektore batzuetan baino askoz gutxiago. Eustat Estatistika Erakundearen arabera, baserritarren % 51k erabiltzen dute Internet, % 46k ez dute helbide elek-tronikorik eta bakarrik % 6k du webgunea. Beste erronka emakumea lehen sektorean bultzatzea da. Izan ere, gaur egun euskal baserritarren % 30 emakumezkoak dira, baina zuzendaritza karguetan, bakarrik

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**  
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:  
94 452 29 10

**PATXI**  
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nekazaritza - 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 257 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

**Peñasko**  
arraindegia

Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

# 27 kilometroko baino gehiago, ma

a: Idoia Andres

Nordic Walking gunea edade guztietako ibiltarientzako udalerriko eremua da, eta helburu bikotxa dau: alde batetik, herritarren osasuna hobetzea; eta bestetik, udalerriaren paisaia-, natura-, eta kultura-ondasunak ezagutzera emotea. Egitasmoa Alemaniako eta Suitzako ereduetan oinarritzen da, eta martxa nordikoa eta aire zabaleko udal azpiegiturak lotzen dauz. Holan,aldi berean urbanoa eta naturala dan ingurua sortzen da, jarduera fisikoa egitea errazteko eta sedentarismoa gitzitzeko.

Larrabetzuko Nordic Walking Gunea bost ibilbidek osatzen dabe; orotara 27,6 kilometro martxa nordikoa egiteko. Ibilbideetan zehar seinaleak ipini dira, ibiltariek arazo barik identifikatu daitezkan. Ganera, kolore-kode bat sortu da ibilbide bakotxaren zailtasun-maila adierazoteko. Kolore berdeak ibilbide erraza dala adierazoten dau; urdinak, erraza dala; gorriak, zaila; eta beltzak, oso zaila. Ibilbideak asfaltotik zein basabideetatik pasaten dira.

“Markinako, Areatzako eta beste herri batzuetako esperientziak ikusita, eta kirola eta osasuna buztartzea helburu genduala, Larrabetzuko Nordic Walking Gunea martxan imintera animau ginan”, azaldu dau Iñigo Gaztelu alkateak. “Herritar askori oinez ibiltea gustetan jake eta bueltaka dabilz auzoetatik. Nordic walking teknika kirol modalitatea da eta oso onuragarria da osasunerako. Bestalde, gure ustez, jente barria kirola egitera animatzeko aukera ona da”. Larrabetzuko zentroak bat egin dau Nordic Walking Zentroen Sarearekin, eta gaur egun Euskadiko 31 udalerri eta Nafarroako lau udalerri dagoz sare horren barruan. “Beste herri batzuetatik etorri ahal dira Larra-

Nordic walking-ak edo martxa nordikoa kirola, osasuna eta turismoa buztartzen dauz eta, horretarako, inguru urbanoa eta naturala alkartzen dabezan ibilbideak erabiltzen dauz. Larrabetzuko Nordic Walking Gunea urrian inauguratu zan eta herritarren zein bisitarien eskura bost ibilbide ipini dauz, ingurua disfrutau daben bitartean kirola egin daien.



| IBILBIDEAK |               |             |           |          |
|------------|---------------|-------------|-----------|----------|
| ZAILTASUNA | IBILBIDEA     | KILOMETROAK | DESNIBELA | DENPOREA |
| Oso Erraza | Berresonaga   | 3,7         | 70 m      | 1:05     |
| Oso Erraza | Goikoelexalde | 2,8         | 56 m      | 0:50     |
| Erraza     | Ubiritxaga    | 4,4         | 90 m      | 1:25     |
| Zaila      | Gaztelu       | 7           | 227 m     | 2:20     |
| Oso zaila  | Tuertogana    | 9,7         | 341 m     | 3:15     |

**RPM**  
MAYORISTAS INFORMATICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

**RUBÉN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA  
Lehendakari Leizaola plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

**ZAMUDIO**  
Lotería Nacionala  
Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
[josuastorkiza@gmail.com](mailto:josuastorkiza@gmail.com)



# rtxa nordikoa egiteko

*Aldi berean urbanoa  
eta naturala dan  
ingurua sortzen  
da, jarduera fisikoa  
egitea errazteko*

betzu ezagutera; hau da, berton kirola egin, herria ezagutu eta berton disfrutau”.

Diseinatutako bost ibilbideei esker, herriko kirol azpiegiturak udalerrri osora zabaltu dira. Beraz, gaixotasunei aurrea hartzeko tresna izateaz ganera, *nordic walking*-ak ekarpena be egingo dau gizarte-harremanak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

## Persona guztientzat

Martxa nordikoa Finlandian sortu zan 1930ean. Hango eski-talde bat hasi zan udako entrenamenduetan be eski-bastoiak erabiltzen, ibiltzen ziran edo korrika egiten eben bitartean; denporearen podasoz, denporaldiz kanpo entrenatzeko ohiko metodo bihurtu da eskiazaileentzat. Gaur egun, lau milioi lagunek baino gehiagok egiten dabe *nordic walking*-a Europako iparraldeko herrietan. Alemanian gaixotasun koronarioak eta biriketakoak prebenitzeko erabiltzen da, baita errehabilitazio-programen barruan be. Estatuari jagokonez, kirol honek zale asko dauz Katalunian, Balear Uharteetan eta Valentzian.

*Nordic walking*-a egiteko ez da beharrezkoa sasoi-saoian egotea eta, ondorioz, edozein personak egin leike: umeek zein gazteek, helduek eta adinekoek. Oso erraza da egiten, izan be, bakarrik bastoi bi

erabiltzen dira ibiltzen dan bitartean; ondorioz, hankak ez eze gorputzaren goiko aldea be lantzen da.

Oso ariketa osasungarria da eta, maila zientifikoan egiaztatu dan moduan, onuragarria da hainbat minetarako eta sistema kardiobaskularrerako eta arnas sistemarako. Besteak beste, jarrereari eta bizkarrezurrari lotutako giharrak sendotzen ditu eta lagungarria da kolesterol-mailarako, odol-presinoa kontrolatzeko eta sorbaldako mina arintzeko. Era berean, martxa nordikoa egiten danean, artikulazioek ez dabe sufritzen, eta lagungarria da pisua galtzeko. Azkenik, jarduerak dibertigarria da eta aire zabalean egin leiteke, bakarrean edo taldeka, eta urteko edozein sasotian. Ondorioz, estresa gitzitzen laguntzen dau. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak diruz lagundu dau Larrabetzuko egitasmoa.

## Teknikea

Martxa nordikoa ibilteko modu naturalean dago oinarrituta, baina teknikak gako honek be hartzen dauz kontuan:

- Sorbaldak erlaxatuta egon behar dau.
- Bastoei ez jake oso gogor heldu behar.
- Bastoiak diagonalean imini behar dira.
- Bastoiak pelbisaren atzetik bultzatu behar dabe.
- Bultzatu ostean, bastoiak azkar eroan behar dira aurrera.
- Bultzatzen amaitzen danean, ahurra zabaltu behar da.
- Aldi berean aurreratu egin behar dira oina eta kontrako eskua.
- Oin osoa ipini behar da lurrean.



**TURREGOITI**  
**JATETXEA**  
Laurabela etorbidea, 27  
48180 Lali-Bizkoka  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteturregoit.com

**elekma**  
URRIATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK,  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO DOKAK  
Lehenengo martak • Prezioak onerak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Teorien etorbidea, 25-3.N. 48180 Lali  
T: 944 539 232  
www.elekma.es

RPS / 184/70

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea  
**ZAMUDIO**  
Tel.: 94 452 28 18



# Kirol egokituaren aitzindaria

t: Gaizka Eguzkitza

JOSE MANUEL CENTENO | kirolari egokitua

Jose Manuel Centeno Barakaldon jaio zen 1972an, baina urte batzuk eman ditu Larrabetzun. "Duela 20 urte baserri bat erosi genuen bertan. Guztira, lau urtean izan nintzen Larrabetzun, poz-pozik. Goi-zean quad-a hartzen nuen eta txangoak egiten nituen inguruko mendietatik. Alde egin nuen, bakarrik bizi nahi nuelako. Gaur egun Algortan bizi naiz, baina etorkizunari begira, itzuli egingo naiz Larrabetzura, gurasoak eta iloba bertan daudela-ko", esan digu.

Larrabetzun Iker Amari-ka ezagutu zuen, eta, bere bitartez, pala egokituan hasi zen. "Beti ibili izan naiz frontoian eta beti gustatu zaizkit erraketa erabiltzen duten kirolak: pala, frontenisa, mahai-tenisa... Gipuzkoan eta Iparraldean aspaldian jokatzen dute pala egokituan, eta Amari-kak Bizkaian ere bultzatu nahi du. Horretan gabiltza, kirolari ikusgarritasuna ematen, gero eta jokalaria gehiago lortzeko".

Urrian, Basauriko San Migel jaietan, pilota egokituaren txapelketa antolatu zen Bizkaian lehendabiziko aldiz. Jose Manuel Centeno larrabetzuarrak txapela irabazi zuen Beñat Lizaso gipuzkoarrarekin batera. Centeno pala egokituan ez ezik, saskibaloian eta beste kirol batzuetan ere aitzindaria da.

Horri lotuta, Basauri-Bilbondo Pilota Egokituaren Sari Nagusia antolatu zen urrian, eta Jose Manuelek txapela irabazi zuen. "Emaitzak ez dauka garrantzirik. Helburua bete dugu: pala egokitua lau haizeetara zabaltzea; horregatik nago pozik. Hurrengo urratsa babesleak topatzea da, dirurik gabe, goi-mailako kirolak ez baitago. Harremanetan gaude Bizkaiko Foru Aldundiarekin, ea gurpil-aulkiak lortzen ditugun udaberriko txapelketan parte hartzeko".

Pala egokituak ezaugarri berezi batzuk ditu, Centenok azaldu duen moduan: "Pilota frontenisena bezalakoa da, baina presio gutxikoa; hau da, bote gutxiago egiten du. Beste alde batetik, pilota arruntan bote bakarra onartzen den bitartean, pilota egokituan bote bi onartzen dira. Eta gurpil-aulkiak ere badira desberdinak, pilotan jokatze-ko egitekoak baitira: padela, tenisa... Oso garestiak dira, 3.500 eurotik gorakoak, eta oso arinak. Jokalari bakoitzaren neurria egin behar dira, eta pieza



*"Pala egokituan  
aspalditik jokatzeko dute  
Gipuzkoan eta  
Iparraldean eta Bizkaian  
ere bultzatu nahi dugu"*

*Goi-mailako kirolaria  
da: txirrindularitza,  
Estatuko txapelduna  
izan da, eta saskibaloian,  
Europakoa"*

bakarrekoak badira, hobeto". Gauza bi, ordea, ez dira aldatzen: batetik, paleta; eta bestetik, frontoia. Baina neurriak desberdinak dira: sarea hirugarren koadrotik egiten da, eta bigarren eta laugarren koadroaren artean egin behar du botea.

#### Aitzindaria

Jose Manuel gorpil-aulkian dabilen Bizkaiko lehenengotariko pilotaria da, baina ez da aitzindaria izan den lehenengo aldia. "Pala da nire azken abentura, baina beste kirolatan ere ibili naiz: gaur egun, eskia eta paddle surfa (surfa arraunekin) egiten ditut, eta gaztetan, igeriketa eta txirrindularitza. Txirrindularitza egokituan, Estatu zein Euskadiko txapelduna izan naiz. Kirolak izugarri lagundu dit. Mugikortasun handiagoa eman dit, ilusioa, erronkak... Elbarrituok esparruak behar ditugu aire librean egoteko, eta kirola oso lagungarria da".

Eta jakina, saskibaloia. 1995ean, Jose Manuelek auto-istripua izan zuen eta, harrezkero, gorpil-aulkian mugitzen da. Urtebete eman zuen ospitalean, eta hortik atera zenean, Bidaideak saskibaloia taldean sartu zen. "Europako txapeldunak izan gara, Europako 10 talderik onenen artean gaude, munduko ligarik onenen gabilta...". Aurten taldea utziko du, gogorregia delako. "Berrogeita zazpi urte ditut eta nagusia naiz saskibaloian goi-mailan jokatzeko. Bidaideak taldean gogor entrenatzen dugu, kontaktu handiko kirola da eta neka-neka eginda heltzen naiz etxera. Hala ere, hain gogorak ez diren beste kirol batzuk egiteko asmoa daukat: pilota bera, esate baterako".



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:  
TXARTELOEGIAN  
Edozein ekintza hasi baino  
ordu bat lehenago





**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefona 94.453.64.13

2D: 4 €    3D: 6 €




**ABOMINABLE**  
AG (2D)  
Azaroak 3, 17:00

**AGUR ETXEBESTE**  
EG-7 (2D) EUSKARAZ  
Azaroak 3, 19:30

**MALEFICA: MAESTRA DEL MAL**  
EG-7 (2D)  
Azaroak 10, 17:00

**ABUELOS**  
AG (2D)  
Azaroak 10, 19:30

**LA FAMILIA ADDAMS**  
AG (2D)  
Azaroak 17, 17:00

**EL SILENCIO DE LA CIUDAD BLANCA**  
EG-16 (2D)  
Azaroak 17, 19:30




**ETA ABENDUAN...**

**SI YO FUERA RICO**  
**FROZEN II**

**MARI ERRAUSKIN (GLU-GLU)**  
ANTZERKIA EUSKARAZ (3-9 URTE)  
ABENDUAK 15, 17:00  
PREZIOA: 6 €






\*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

t: Einer Larrabeiti

Gaur goizean, Bizkaiko herri batetik, pertsona-talde bat pasatu da euskaraz berbaz. "Giputxiek..."-pentsatu dau bizkaitarrak. Ostera, atzerrian dagoanean eta nonor euskaraz entzutean, atoan sentitzen ditu poztasuna eta konplizidadea. "Euskaldunak!"-pentsatzen dau eta dogu danok, pozarren, Getariakoak, Txorierrikoak nahiz Baionakoak izanda be. Bando ezbardinean kokatzetik, ohe berean sartzeraz igarotzen gara, aizue. Horri egokitzapen hipokrita deritzo(t).

Egokitu ala hil. Esaera ezaguna, konkretuki, oihanean biziraun eta eboluzionatu zeurienengandik ikasi genduna. Besteak beste, gizakiak lau hankatan ibiltzetik zutuniki ibiltzera igaro ziran, beldartza handien ganetik ikusi ahal izateko; eta, era berean, etsaiengandik babesteko makurtuta jarraitu zeurien. Egokitu eta biziraun egin eben.

Gaur egun, jaioten garan unetik elikagaia, etxea eta maitasunaren beroa (biologikoa edo ez) dogunok bizirautea naturala dala barneratuta daukagu. Halan da be, txiki-txikitatik mehatxu edo arrisku batez gain topo egiten dogunean, bildurra sententzioa ezagutzen dogu, emozio natural eta beharrezkoa. Arazoa dator, nahastu egiten doguzanean benetako arriskua (esaterako, norbait mina emate-



## "Gutariko" bat

ra datorkit) eta arrisku asmatua (agian ez nau maite, adibidez). Izan ere, mehatxu moduan hartzen dogu bizitzen ari garan egoera, eta modu bitan erreakzionatzen dogu: defendatuz edo egokituz.

Alde batetik, egoerari aurre egin gura ez deusagunean defendatu egiten gara: fisikoki bururkatuz, eztabaidatuz, egoera sahistuz, urrunduz... Beste alde batetik, esan beharra dago, egokitzea ez dala berez gauza negatiboa, ezta positiboa be. Esaterako, hiru lagunetatik bik lokalean sartuta igaro gura dabe asteburua, eta batetik bestelako planak egin nahi ditu. Batera egotearren, egokitu egiten da azken hau, eta lokalean geratzen dira. Halan be, beti berbera egokitu behar bada, hori ez da, ez orekatua, ez positiboa.

Halako egoerak arlo ezbardinetan aurkitu ahal ditugu: familian, hurbileneko senideen espektatiba eta nahietara

egokitzen gara; lagunartean, limurtzailea, seduktorea edo liderra dan horrek, edo gehiengoak, dinoanagaz bat bagatoz, egokitzen bagara, arreta gehiago jartzen deuskue, hobeto tratatzen gaitue eta baliotsuago sentitzen gara. Generoari dagokionez, bagina badozu besteak ulertu eta lagundu; zakilduna bazara, tinko eutsi zeureari, enpatian ez galdu astirik; egokitu zure rolera. Mundu modernora ere bai: "Ez dot ulertzen zergaitik ez dozun sare sozialik, Instagrama behintzat!"

Baliteke uste izatea zerbaitegaz / norbaitegaz bat etorri behar dozula balioa izateko edota isolatuta ez egoteko; sozialki ez "hiltzeko", alegia. Baina ez dago ideia erratuagorik. Izan ere, harreman osasuntsu eta benetakoek ez daukie pertentziagaz zerikusirik.

Zu zeu zara. Eta ez talde baten praktikatzaile fidela. Ala bai?

*Harreman osasuntsu  
eta benetakoek  
ez daukie  
pertentziagaz  
zerikusirik*



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO



**ama**  
**taberna**  
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69



**AmAr**  
**ileapaindegia**  
Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburuntza:  
8:00-13:30  
Uribe plaza, 1 behea  
Zamudio  
**94 4520419**





# Txorierri institutua txabola artean

## Eraikuntza berria inoiz ez?

t: Juan Luis Goikoetxea

"Zer hintzen eta non hago!" Hala abesten dugu Benito Lertxundiren *Oi Zuberua* kantan. Txorierri Institutua non hago? Orain 36 urte eder hintzen, horma zuri, teilatu gorri; Gaizka Garitano Athleticeko entrenatzaileak eskerrak zuri; Miren Basaras unibertsitateko irakasleak eskerrak zuri, Sara Gandara kazetariak eskerrak zuri; Katalin Zarate, inline patinatzaile artistikoak, munduko txapeldun denak, eskerrak zuri.

Bilboko laugarren institutu legez abiatu hintzen, herritarren eskariz eta ekinez, administrazioaren pasibotasunaren aurrean. Orain, gailurretik lurrera jausi haiz, txabolaz inguratu haute. Jaurilaritzan orain 16 urte egiteko zen eraikuntza berriaz galdetuta, erantzuna: laster! Jadanik, erantzun kronikoa. Laster hori ezetzaren sinonimo berria, larria. Zer hintzen eta non hago!

Dozenaka dira neska-mutilak institututik igaro; ehunka gizartean lanean fin-

katu; milaka inguruan mugitu. Ordea, non dira ikasle ohiak, txorierriar eta bilbotar haiek? Zertan dira gaur Xabier Mauleonek Gasteizen emandako berba historikoak?: "Txorierri ikastolarik ez duzuenek, euskarazko institutua eraikiko zaizue". Hala bete zen hitza orduan. Orain, non dira berbako Mauleonen eta Makua Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren ondorengoak?

Larrabetzun hasi ginen institutuko irakasle on belaunaldia jubilatuta gara. Gazteria berriaren txanda da orain. Ondo dakizue euskal kulturaren geroa zeuen orainetik etorriko dena. Eraikuntza berria berez egingo denik ez uste. Hamaikatxo bider entzun dut "niri bost". Esan dezagun "niri ardura deust".

Noiz arte Angel Serrano artzain gidaria, institutu-sortzaile ohorezkoa, bakar-ahaleginetan. Errepika dezagun Xabier Amuriza eta Oskorrigaz:

*"Geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara!"*

# GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com



## BC Fun Fitness GYM

### EKIPAMENDU BERRIA



Segimendu  
pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)

Prezio bereziak,  
talde eta  
enpresentzat

Jarraitu



Ugaldeguren II Industrialdea, partzela 9, nabe 3  
628836753 - 944520815 gymtxorierri@gmail.com

## ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1

Tel.: 94 454 10 06

Faxa: 94 454 12 15

48170 Zamudio (Bizkaia)



## SANTI MAMI

ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cole. 517

COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO

Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15

Faxa: 94 454 12 15

## Etxeko sukaldaritza

Arroz- eta barrengorri-  
entsalada epela

t: M. Lekerika / a: YouTube

## Osagaiak (lau lagunentzat):

- 200 g arroz
- 200 g barrengorri edo txanpiñoi (txikituak)
- Berakatz-atal bi (txikituak)
- 100 g hirugihar (txikitua)
- Kipula bat
- Ahuakate bat

## Prestetako erea:

Arroza ur ugaritan egosiko dogu gatz apur batez. Hotzitu eta xukatuko dogu. Kipulea zerrenda meheetan ebagi, eta su ezitan prijiduko dogu. Ondoren, berakatzak eta hirugiharra gehituko doguz; eta gero, barrengorriak. Beharrezkoa bada, gatza botako dogu. Arroza plateretan banatuko dogu. Ahuakatea zerrenda luzeetan ebagiko dogu, eta zatiak arrozaren gainean ipiniko doguz. Ondoren, beste osagaiak botako doguz.



a: cuentosyrecetas.com

Kalabaza-opil  
txikiak

## Osagaiak (30 opil-txiki):

- 250 g kalabaza
- Edalontzi txiki bat azukre
- Limoi-birrindura
- Arrautza bi
- 250 g urun
- Edalontzi txiki bat esne
- Oliba-orioa
- Azukrea kaneleagaz

## Prestetako erea:

Kalabazea zuritu, eta zatituko dogu. Hamar minutuan egosiko dogu. Ondoren, hagaxka batek lagunduta sakatuko dogu, harik eta ore antzeko bat lortzen dogun arte. Orea azukreagaz, limoiagaz, arrautzakaz, urunagaz eta esneagaz nahasiko dogu, harik eta ore uniforme bat lortzen dogun arte. Zartagin baten orioa ipiniko dogu, eta bero-bero dagoanean, ore-zati txikiak botako doguz. Alde bietatik prijiduko doguz. Opil txikiak erretilu zabal batean ipiniko doguz, eta azukrez eta kanelaz hautseztatuco doguz.



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basemko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



**PELUKERIA  
ESTETIKA  
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU  
Tel. 944 558 144

**Alaia**

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktua



Tolleri, S  
48170 Zamudio  
94 485 05 85



**Baserritarren Alkartea  
Lezama S. Coop.**


Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
Tel. 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

**Pentsu  
naturalak**



## Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.  
a: [www.orientacionandujar.es](http://www.orientacionandujar.es)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

–*Jamaikako neska* (Pamiela), Joxemari Iturralde.  
–*Sapiens, Gizadiaren historia labur bat* (Elkar), Yuval Noah Harari.  
–*Derbia* (Elkar), Juan Mari Irigoien.  
–*Maitasun keinu bat besterik ez* (Erein), Hasier Arraiz.  
–*Pape Niang. Hasiera berri bat* (Argia). Mikel Garcia Idiakez.

### LITERATURA: GAZTEAK

–*Rowley naiz. Mutiko superjatorra* (Alberdania), Jeff Kinney.  
–*Gure egongela. Familia mila kolore* (Elkar), Julen Tokero Alvarez eta Miren Amuriza.  
–*Lehenengo musuaren zain* (Txalaparta), Antton Kazabon Amigorena.  
–*Coraline* (Elkar), Neil Gaiman.  
Itzulpena: Julen Gabiria.  
–*Hondamuinean: sei hilabete geroago* (Farmazia beltza), Zerocalcare.

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 |   | 9 | 8 |   |   |   |   |   |
|   | 2 |   |   |   |   |   | 3 | 7 |
|   |   |   |   | 5 |   |   | 6 |   |
|   | 4 |   |   |   | 6 |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |   | 9 |
|   |   | 6 |   | 7 | 8 |   | 4 | 5 |
|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|   | 6 |   |   | 4 | 2 | 7 | 9 |   |
|   | 5 |   |   |   |   |   |   | 4 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 8 | 2 | 1 | 3 | 9 | 7 | 5 | 6 |
| 3 | 6 | 7 | 2 | 4 | 5 | 1 | 9 | 8 |
| 9 | 5 | 1 | 6 | 8 | 7 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 4 | 3 | 8 | 7 | 1 | 9 | 6 | 2 |
| 6 | 1 | 9 | 5 | 2 | 4 | 3 | 8 | 7 |
| 2 | 7 | 8 | 9 | 6 | 3 | 5 | 4 | 1 |
| 8 | 9 | 6 | 7 | 5 | 2 | 4 | 1 | 3 |
| 7 | 3 | 5 | 4 | 1 | 6 | 8 | 2 | 9 |
| 1 | 2 | 4 | 3 | 9 | 8 | 6 | 7 | 5 |

  
**Lzpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA  
Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - [izpilen@gmail.com](mailto:izpilen@gmail.com)

  
**yedra floristas**  
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefonoa: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)

**TXORIERRI Inmobiliaria**  
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia  
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11  
[txori-erri@euskalnet.net](mailto:txori-erri@euskalnet.net)  
*enregandik gerta*  
ABOKUARIETZA - TASAZIOA  
ALOKATZAK - ENKALDATZEAK  
SALEROKETAK  
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

## Azokak

### Sondika

- > XXII. Euskal Azoka. Azaroaren 17an, 10:00etatik 15:00etara: produktuak, txalaparta, kalejira, tailerrak, erraldoiak eta buruhandiak, euskal kantak eta dantza kantak.

## Erakusketak

### Sondika

- > "Munduko talderik onena. Athletic Klubaren istorioak", Tomas Ondarraren eta Carlos Raneroren eskutik; BBK-k utzitakoa. Azaroaren 4tik 28ra, liburutegian.

### Derio

- > "Mugimendua naturan, teknologia eta ametsak", Itsasne Zubiriren eskutik. Azaroaren 23ra arte, Kultur Birikan.
- > Derioko XII. Argazki Lehiaketaren argazkirik onenak. Azaroaren 25etik urtarrilaren 13ra arte.

### Larrabetzu

- > "Jantzigintzaren industriako emakumeak". Azaroaren 15etik 29ra, Anguleri kultur etxean. Hitzaldia: azaroaren 15ean, 18:30ean.

## Filmak

### Derio

- > Zaintza partekatua bideo-foruma, EMPONDER-ARTEko Flor Martinekin. Azaroaren 21ean, 17:00etan, Kultur Birikan. Sutondoan elkarteak eta udalak antolatua.

## Hitzaldiak

### Derio

- > "Seme-alabei autoestimu positiboa zelan txertatu", Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik. Azaroaren 12an, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > "Emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen alde, Garbiñe Mendizabalen eskutik". Azaroaren 19an, 17:00etan, Kultur Birikan. Sutondoan elkarteak eta udalak antolatua.

### Larrabetzu

- > Indarkeria matxista prebenitzea. Azaroaren 14an, 18:30etik 20:00etara, Anguleri kultur etxean.
- > Literaturaz berbetan: Unai Elorriagaren *Iturria* lana. Azaroaren 14an, 19:00etan, Errebale jauregian.

## Ikastaroak

### Lezama

- > Batukada tailerra, Sokole kolektiboaren eskutik. Azaroaren 13an, 18:30ean, Uribarri Topalekuan.
- > XIV. Euskal Kantu ikastaroa. Azaroaren 9an, 15ean, 22an eta 29an, 19:15etik 20:15era, Uribarri Topalekuan. Zorriketan euskara elkarteak antolatua.
- > Clyclore Fitness, 13 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Zapatueta, 11:00etatik 13:00etara, gimnasioan. Informazio gehiago: zorribike@zorribike.com.

## Ikuskizunak

### Larrabetzu

- > Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Azaroaren 22an, 18:00etan, frontoian.



argazkia: buesa-arena.com

## Irteerak

### Sondika

- > Atxarte-Polpol-Urkiola. Izena ematea: azaroaren 6ra arte, liburutegian. Gurasoen elkarteak eta udalak antolatua.
- > Ermua-Gorliz. Izena ematea: azaroaren 6ra arte, liburutegian. Gurasoen elkarteak eta udalak antolatua.

### Lezama

- > Kristinoen kobazuloa. Azaroaren 9an, 08:30ean, herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > GR-280 Uribe. Azaroaren 17an, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

## Kontzertuak

### Derio

- > Santa Zezilia. Azaroaren 24an, 19:00etan, San Joan Bautista elizan. Kalejira, 18:30ean Jubilatuen Etxetik. Ipar Elaiak txistu taldea, Gorantzaileak dantza taldea, eskolako abesbatza, Txuma Olague abesbatza, Olague talde korala eta Pentagrama akordeoi elkarteak.

### Loiu

- > Bizkaiko Hotsak. Diego Amezua XIV. Organo Jaialdia. Azaroaren 30ean, 12:30ean, San Pedro elizan. Pablo Marquez eta Atsuko Takano organistek batera joko dute.

### Derio

- > Santa Zezilia, Ipar Alde abesbatzaren eskutik. Azaroaren 23an, 19:00etan, San Isidro elizan.

### Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Aguxtin Alkhat. Azaroaren 17an, 18:30ean.

## Ospakizunak

### Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, 12:30ean: meza eta aurrekua Gorantzaileak dantza taldearekin; ondoren, kalejira Triki Xabierrekin.

### Larrabetzu

- > Bizkargi dantza taldearen bosgarren urteurrena. Azaroaren 8an, 19:00etatik aurrera: dantza-kantu-poteoa (Gibelurdinek), dantza ikuskizuna (Tio Teronen Semeak), dantza-kantu-poteoa eta pintxoak (Anguleri kultur etxean).

## Bestelakoak

### Derio

- > Derio Olgetan. Azaroaren 23an eta 24an, 17:00etatik 20:00etara, frontoian.
- > 80ko hamarkadako jaia. Azaroaren 16an, 20:00etatik 03:00etara, frontoian.

**IRATXO**  
gozotegia  
tarta pertsonalizatuak  
brufak  
leizak  
pastelak  
pastak  
Mikel Zarate, 2-3. lorra • Sondika, 48150 • 94 453 09 19

**GALAISA**  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51  
Sabinio Arana 1-3. SONDIKA

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31



## ZELAN?

### POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(\*) bete eta bidali:  
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

### E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

### TELEFONOZ:

94 452 34 47  
688 86 41 35

### AHOZ:

Zure herriko euskara  
elkarteko kideren bati esan

(\*) Fitxa aldizkarian bertan eta  
erakundeetan, liburutegietan,  
komertzioetan... utziko ditugun  
diptikoetan topatuko duzue.



## Egin zaitez Aikor!lagun

**Etxe bat, lagun bat**



## Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**Aikor! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituen baliabideak erabiliko ditu. Dena dela, edozein momentutan datuak eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).





**STIHL**

2019KO UDAZKENAREN ESKAINTZAK

# ERRENDIMENDU EZIN HOBEA EGUNERO —



Hemen gaude:



BANATZAILE PREMIUM  
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín  
*Astikene*

Astikene industrialdea, Berezi 23C  
48160-Derio BIZKAIA  
Tel.: 944 540 652 688 633 197  
astikene@agrojardinastikene.com  
www.agrojardinastikene.com